

# luma berrien eleak

2009ko ekaina

[www.idazten.com](http://www.idazten.com)


7. zb. 3 €



idazle berrien  
sorlanak, iritzi  
eta gogoetak,  
narrazioak,  
antzerkiak,  
poesiak...

Jokin Muñozekin  
solasean 29-35 or.

# DUDA-MUDA<sup>tik</sup>

duda  muda

## DUDANET<sup>era</sup>

DUDA  
MUDA



**NAIP** Herri Arduralaritzaren  
Euskal Erakundea

euskaltzaindia.net

Hiziera

Kontaktua

Laguntza

Gunearen mapa

Erabilerratasuna

Identifikatu

es | eu

Erakundea ▼

Zerbitzuak ▼

Arloak ▼

Loturak ▼

Hemen zaudte: [Hiziera](#) / DUDANET

DUDANET

- » Zer da Duda-muda?
- » Jakin beharrekoak
- » Gure konpromisoak
- » Gure zerbitzura jo aurretik
- » DUDANETen bilatu
- » Kontsulta bat egin
- » Nire harpidetza

ADMINISTRATZIOA  
EUSKARAZ

WC WAI-A  
WCAB 1.0

## DUDANET

DUDA  
MUDA

## DUDANET

### Kontsulta DUDA-MUDAn

GALDERAREN DATUAK

Esparrua : ADMINISTRATZIO HIZKERA. GRAMÁTICA.  
Azpikategoria : DEKLINABIDEA  
Hizkuntza : EUSKERA  
Kontsulta-data : 2008/04/30  
Galderaren egoera : KATALOGATUA  
Erantzunaren data : 2009/03/17  
Lotutako URLa :  
Laburdurak :

Kontsulta : Noiz jartzen da "baten" eta noiz "batean"?

Gako-hitzak (\*):z bereziak : BATEN / BATEAN

Testuingurua :

Erantzuna : Batetik, deklinabide kasua aztertu behar dugu; izan ere, *batean* hitzak *NOIZ* eta *NON* galderari erantzuten die (leku-denborazko kasuei, hain zuzen ere).

*Baten* hitzak, berriz, aurrekoek gain *NOREN* galderari ere erantzuten dio (nahiz eta testuinguru horretan arazorik edo nahasketarik ez sortu).

Beraz, *bat* hitza mugagabe bada, *batean/baten* biak erabil daitezke leku-denborazko kasu bera azaltzeko (*etxe batean/baten*). Nolanahi ere, bigarrena, batez ere, bizkaieraz erabiltzen da.

*Bat* hori mugatua bada, berriz, *batean* erabili behar da beti. Kasuak eta testuinguruak hobeto aztertu zituen Euskaltzaindiak 12. arauan. Araua honako helbide honetan ikus dezakezu oso-  
osonik:

[www.euskaltzaindia.com](http://www.euskaltzaindia.com)

Atzera

# aurkibidea

## IRITZI ETA GOGOETA

- «) Nere bideak - Iban Balerdi..... 4
- (e)zer izan - Izen Yoseba..... 5
- Infernua zerura iristeko egin beharreko bidea da - Aitziber Lekuona.. 6
- Azalorearen izena - Izen Yoseba ..... 7
- Atapuerca, hortzetik hitzera - Juanmi Munarriz ..... 8

## NARRAZIOAK

- Ilunbideetan - Igone Meaza ..... 9
- Oinutsik - Leire Zubeldia..... 10
- Larunbatero - Carmen Valois ..... 11
- «) Boikot-eroa - Inaxio Lopez de Arana ..... 12-13
- Badator autobusa - Karmele Igartua Bengoa..... 14-15
- Lanpostu berria - Maku Noriega ..... 16-17
- «) Loreen artean - Ekaitz Goienetxea ..... 17
- Zubi irekia - Izen Yoseba ..... 18-19
- Hogeitazortzigarrenean - Eneko Aranburu ..... 20-21
- Finlandia - Maku Noriega..... 22-23

## ELKARREKIN HIZKETAN

- «) 2Dak - Aitziber Lekuona ..... 24
- «) Maite zaitut - Maku Noriega ..... 25
- Diogenes txakurra - Iñaki Odriozola..... 26-27
- «) Love boat - Ekaitz Goienetxea ..... 28

## ELKARRIZKETA

Solasean, Jokin Muñozekin - Iban Balerdi eta Leire Zubeldia 29-35

## POESIA

- «) Bidean - Alaitz Vives ..... 37
- «) Ibiltariaren haikuak - Carmen Valois..... 38
- «) Joan ziren hiru puntu - Ekaitz Goienetxea ..... 39
- «) Hutsa pasatzen denean - Amaia Artolazabal Amilleta ..... 39
- «) Bizitza bertze nonbait dago (nigandik at) - Ainara Maia..... 40
- Udaminean -Ainara Maia..... 41
- Adiskidetasuna - Ainara Maia..... 41
- «) Jakin izan banu - Ione Gorostarzu..... 42
- Behar zaitut -Ione Gorostarzu ..... 42
- Zorion -Ione Gorostarzu ..... 43
- «) Udagoiena, hostoen galera - Axun Gereka ..... 44

## Gernika ilunabarrean:

- Aurretik - Itziar Gomez..... 45
- «) Eta noiz hasi ginen izaten? - Itziar Gomez ..... 46
- «) Gernika - Ainara Maia..... 46
- «) Izarrik ez zeruan - Karmele Igartua Bengoa..... 47
- «) Bakarrik ez zaude - Doltza Barandiaran Munduate ..... 47
- «) Zaldi Pikassianoa - Iñaki Odriozola ..... 48

## IRAKURKETAK

Gorrotoa lege - Karmele Igartua ..... 51  
 Festa aldameneko gelan - Amaia Artolazabal Amilleta..... 52  
 Hyde Parkeko hizlaria - Alaitz Vives ..... 53  
 Hauts bihurtu zineten - Ekaitz Goienetxea ..... 54-55  
 Bestea da mundua - Inaxio Lopez de Arana ..... 56  
 Zer da, ba, maitasuna? - Karmele Igartua Bengoa..... 57

## GURE ARRASOIA

59-60

## NOR DA NOR

61-62

## LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUETAN:

**BILBO:** Elkar-Iparragirre Megadenda.  
La Casa del Libro. **IRUÑEA:** Xalbador.  
Lanbroa taberna. **DONOSTIA:** Bilintx.

**GASTEIZ:** La Casa el Libro. Elkar  
Megadenda. **IRUN:** Bilintx. **BERGARA:**  
Etxeapare. **ZARAUTZ:** Garoa liburuden-  
da eta Indize liburudenda. **ARETXABA-  
LETA:** Leniz liburudenda. Kioskoa.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

### IDAZLE ESKOLA

ZUZENDARIA: Tere Irastortza

### IDAZKUNTZA KONTSEILUA:

1. eta 2. mailako ikasleak

### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Bierrik Fundazioko  
argitalpen zerbitzua

### INPRIMAKETA:

GERTU Inprimategia  
Zubillaga ind. 9 - 20560 Oñati

L.G. SS-803/04

Iratzargailua entzutearekin batera hasi dut eguna. Eguneroko pausuei jarraiki, pertsianako zirikituetatik lehen begirada eskaini diot kanpokoari, berehala sukaldera abiatzeko, bizkortuko nauen edabe miragarriaren prestaketa martxan jartzera. Isiltasuna apurtu dut irrati-lagunei bide emanaz. Berriekin batera errepideetako informazioa interesatzen zait, lanerakoan ezusteko oztoporik topatuko ote dudan jakitea, alegia.

Lasai egin dut Goierritik Andoainerakoa, nire etxea eta ogibidea lotzen dituen N1 trabatuan barna. Lasai diot, gaur ez dudalako kaminoan gelditi egon beharrik izan kamioiren baten atzean, aurrera egitea zerk eragozten didan asmatzeko aukerarik gabe. Tranquil, ez naizelako erretxindu baten bat mantsoegi edo azkarregi zihola irizteagatik. Agian, garaiz esnatu eta presa barik abiatu naizelako. Apika, Aitorri kendu nion eta hain gustura entzuten dudan *Lunaren* musikarengatik izan da. Beharbada, gaueko iluntasunean izandako balizko ametsaren efektu positiboa neureganatu dudalako. Stop.

Euskaltegira ailegatzean, berriaz ere aztoratu xamar nabaritu dut jendea. *Korrika 16* ari da jada bere bidea egiten eta gure bailarara hurbiltzerako guztiak prest behar du. Gauza asko dira ondo lotu beharrekoak baina, batez ere, ibilbideari dagozkiontan ezin da hutsik egin. Hainbesteko jendetza mugiarazten duen jaiak, badu arazo txikiak sor ditzakeen zenbait toki gure ardurapean. Furgonetak pasatzeko adina espazio ez duen bigorria, esaterako. Edo obrak direla eta, kontrako noranzkoan zeharkatuko den zubia. Gainera, ibilbideko kilometro bakoitza ere markatu egin behar da, lekukoa eramango dutenei beraien kokalekua errazte aldera.

Hala ere, Korrikak nire lan karga arintzeko ere balio du zenbaitetan. Iluntzeko klaseko ikasleekin, Korrika Kulturalaren barnean proiektatzen ari diren Jon Maiaren *Bidaia intimoak* dokumentala ikustera joan baikara. Bertan, euskararako bidea egin duten lau lagunentzako jantziak jasotzen dira, beste hainbaten ispilu izan daitezkeelakoan. Lau eredu dira, lau adi-

bide baino ez, bidaia intimoak izanik guztiak baitira bakarrak.

Bakarra den bezala euskararen unibertsoa inguratzen den ororen ibilbidea. Batzuk soilik titularen bila ari dira eta lanpostuaren ikuspuntutik begiratzen diote hizkuntzari. Beste hainbatek nolabait familiak bultzatuta dihardu euskara ikasten. Bikotekidea euskalduna duelako edota seme-alabei eskolako lanetan lagundu ahal izateko. Hirugarren talde bat euskaraz bizitzeko hautua egin izanaren ondorioz gerturatzen da euskaltegira, euskara maitatzeaz gain gozatu ere egin nahi duelako. Arrazoi hauek, hala ere, alda daitezke momenturen batean, baita denboraren poderioz berri ere.

Baliteke, gainera, hasieratik desio desberdinak nahastuta egotea. Beraz aldatu, berri eta nahastu ere egin daitezke, ia ezer ez baita betiko berdin mantentzen.

Bestalde, azaldutakoaren irakurketa orokorragoa eginez, esango nuke hauek direla norbanakoaren bidea markatzen duten faktore nagusiak: familia, beharrak eta nahiak. Kasu bakoitzean desberdina izango da beraien eragina, baita aurrera begira

eman ahal den bilakaera ere. Ondorioz, darabilzkgun kartak markatuta datoz, hein batean, jaio eta hazten garen ingurunetik, baina honen ez gaitu erabat baldintzatzen... ala?

Etxera itzultzean hau guztia idazten pasa dut egunaren azken zatia. Gaurkoa da eta gaurko moduan idatzia. Paper gainean geratzeak berteko bihurtzen omen du, nahiz eta jakin bihar, ziurrenik, beste era batera idatziko nukeela eta, agian, baita zerbait desberdina ere. Teoriak teoria, bidea egunez egun ibiltzen egiten dugu, erori, jaiki, makurtu, salto... egiten dugun bitartean. Erabakiak hartuz. Eta bakoitzak bere gisara. Horretan nabil ni ere, abestiko "my way" delakoa zehazten, onartzen, aukeratzen...

Iratzargailuaren botoiari sakatu diot. Bihar biharkoa.

Iban Balardi



# (e)zer izan

Kanpoan bizi nintzela, Alemaniako lagun batek hegoaldeko herri bat ginela esan zidan mespretxuz, iparraldekoak langile eta serioagoak zirelakoan. Gu: Alemania, Suedia, Ingalaterra, zios-tan. Zuek: Portugal, Euskal Herria edo Grezia.

Harrituta utzi ninduen gure herria betidanik iparraldekotzat jo baitut -ziur aski penintsulan daukagun txokoa ikusita. Hori frogatzeko asmoz, eguzkiarekiko dugun harremana aztertzea proposatu nion.

Iparraldeko herrietan, lehenengo izpiekin batera plazak eta parkeak jendez betetzen dira. Kopenhage, Stockholm edota Berlingo kafeetako terrazetan jesartzen dira, baita neguan ere sutontzi ondoan eta tapakiz bilduta.

Hegoaldekoetan, aldiz, argiak parrandari laguntzen ez dioenez, gerizaren bilaketa amaiezin batean dabilta beti. Izan ere, hondartzetara turistak besterik ez dira joaten, are gehiago goizean goiz.

Alabaina, gu, bai eguzkitan egoteko, bai parrandan ibiltzeko, bereziak gara. Gainontzeko herriek ez bezala, biribil bat zutik eginez biltzea atsegin dugu.

Joera berezi horren arrazoia Oteitzak gure izaeraz egindako burutzioetan aurki daiteke. Euskaldunak eta hutsa: esaterako, gure arbasoek Irurtzunen ondoan Bihaiitze izenarekin, ez zuten han dauden bi tontor horiek izendatu nahi (espainolezko itzulpenean bezala, 'Dos Hermanas', 'bi ahaizpe'). Helburua bestelakoa zen, alegia: euren arteko pasabidea seinalatzea, bi haitz pean igarotzen zena. Mentalitate horretarako, esnea da funtsezkoa eta ez erosten dugun botila.

Hori honela, koadriletan hutsa inguratuz biltzen gara gure pentsaera neolitikoari nahigabe-nahita nahiez- jarraiki. Eta, eguzkita bareak antzera zelan ateratzen garen ikusita, iparraldeko herri langile eta serio garelako ondoriozta daiteke. Berriz, lagunekin egoteko daukagun premia kontuan hartuta, hegoaldekoen alde okertzen da balantza. Beraz, ez helgoaldekoak, ez iparraldekoak... zer gara, bada? Zapatu argitsuetan, gure plazak koadrilez betetzen dira Aurre-Historian erai-



kitzen genituen cromlech txiki askoren irudira, hutsaren inguruan poteoa eginez.

Zer gara edo zer egin dugu, hori baita gizakien Historiarako gure ekarpenik garrantzitsuena: cromlech-en gaurkotzea. Besteek, denboraren poderioz euren helburuak lortu izan dituzte; guk ez. Beharbada, ezerezaren inguruan batzen den herria garelako, esne bako botila bat bezalakoa. Biltzen gara, bai, baina gure artean hutsa besterik ez dagoenez, ez gara gai estatu propio bat egiteko ere.

*Izen Yoseba*

# "Infernua zerura iristeko egin beharreko bidea da"

Buufff... Bortitza izan da gaurkoan ametsetatik errealitaterako pausua. Mundu honetara itzulzeko begiak ireki ditudan momentu berean bart gaueko alkohol eta zigarro perfumea surdurzuloetatik sartu zait. Barru-barruraino. Ia goragalea sorraraziz. Burukomina puntuala izaten da mota honetako hitzorduetan eta espero nuen momentuan agertu da, ohea uzteko ahaleginetan ari nintzela. Momentu horretatik aurrera alferriakoa izaten da min gutxiago eragingo didan postura bat bilatzea, eta betiko erremediora jo dut: *Spidifen*. Droga gogorra.

Erabaki dut. Ezin dut bizitza mota honekin jarraitu, hau izango da denbora luzean egingo dudana azken parranda. Konbentziturata nago. Erritmo honekin jarraitzen badut infernura joango naiz, zuzen-zuzenean, epaiketarik gabe, errugabetasun presuntzio kontzeptua existituko ez balitz bezala. Eta kuriositatea sartu zait...zer egin behar dut zerura joateko? Galdera guztien erantzunak aurkitzen diren tokira zuzendu naiz berehala, birritan pentsatu gabe, orakuluaren tenpluko atea jo dut, Internet, nire kuriositatea laisaituko duen erantzunaren bila.

Milaka orri agertu dira segundo batean nire aurrean, nik beraien gainean klik bikoitza egin eta bere edukiak erakusteko irrikaz dauden orriak. Gehienak erlijiosoak. Sekta tankera hartu diet askori eta hauetako batean sartuta bukatu aurretik kuxkuxero lanak bertan behera uztea komenigarri iruditu zait. Gorputzaldi txarra jarri zait hainbeste gurutze eta jainko ikustearekin. Erlijioarekiko dudan alergia izango da. Edo atzoko mozkorra. Ez dut nire burua engainatuko.

Zerura joan nahi izan ezker ondo portatu behar naizela irakurri dut. Lagunekin zerbait hartzera edo mendira joan beharrean elizara joan behar dudala, apaizak hainbeste aldiz errepikatutakoa berriro entzutera. Bizioak: erabat debekatuta. Alkohola, drogak, sexua, alperkeria...agendatik ezabatu. Min egin didaten eta gorroto ditudan pertsonak nire lagunak balira bezala tratatu behar ditut. Beti besteengan pentsatu behar dut eta bizitza honetan gero eta gehiago sofritu, orduan eta gertuago egongo naiz zerutik. Hau da, beste gauza askoren artean, paradisuari bizi nahi badut ordaindu behar dudana prezioa. Badirudi zeruan ere alokairuak garesti daudela. Bertan tokitxo bat nahi duenak bere bizitza infernu bilakatzeko beharrezko baldintza du. Hori bai...behin sufrimendu guzti hau pasa ondoren hodei baten gainean, eta biluzik, harpa bat jotzeko aukera izango dut. Eternitate osoan.

Gauza hauen guztien inguruan hausnarketa azkar bat egin dut eta barru barrutik sentitu dut eskari bat egiteko beharra, beste mundu misteriotsu hartan bizi omen den jaunari arren eskatzeko premia: Luzifer! Entzuten banauzu egidazu mesedez leku bat zure erreinuan. Goiz hala berandu han agertuko bainatzaizu.

CARPE DIEM.



Aitziber Lekuona

# azalorearen izena

Erdi Aroan nominalistek eta unibertsalistek polemika sutsu bat izan zuten lehenago zer izan zen jakiteko, izena edo substantzia (alegia, arrosaren izena edo arrosa bera). Horren harira, badira hilabete batzuk 'Euskadi' eta 'Euskal Herria' izendapenen arteko ikamika ikusita, gure herrian eztabaida hori ez da oraindik amaitu.

Lehena botere politikoak sustatzen du; bigarrenaren sostengua tradizioa da (Iruña-Veleiako astakeria borobiltzeko 'Euskadi ez da Iberia' idatzia agertu balitz ere). Bien erdian, gure emozioak. Sentimenduak.

Linguistek aspalditik azaldu ziguten hitzen esanahiak komunitateak finkatzen dituela. Hau da, ohitura eta baldintza sozio-politikoek. Eta horiek guztiek alda daitezke, arrazoiak arrazoi. Esaterako, Alemanian batzutan barrengarriak diren eufemismo batzuk hobesten dituzte 'Führer' hitza (gidaria, liderra) saihesteko, Hitleren usaina dario-eta.

Gurean ere, hitzekiko jolasak oso zabalduak daude, bereziki politikoen artean. Inoiz ez diogu Ezker Abertzaleko kide bati Espainiaz mintzatzen entzungo, ezta PPko bati euskal gatazkaz ere. Hitz guztiak marko kognitiboen bidez aurkezten dira, margoak balira bezala. Eta hitzaren esanahiaren harago, ulertzen duguna, -geratzen zaiguna, alegia- marko kognitiboa da. Beste era batean esanda, marko kognitiboak elkarrizketaren muga eta tresna definitzen ditu: jokoaren arauak.



Hori horrela, Euskadi hitza, orain dela 30 urte, Euskal Herria hitzaren parekoa zen; hortaz froga ugari daude *The Organisation*-en izena barne. Euskadi hitza, egun, Euskal Erkidego Autonomoaren sinonimoa da; eta hori ere erraz baieztatu daiteke (galdetu, bestela, nafar bati). Euskaldunok gure identitateari gaineko eztabaida espainolez egiten utzi dugu eta espainolez, agian 'de tanto llover en Euskadi', 'Pais Vasco' hitza urak hartu du. Ez da kasualitatea izendapen horren defendatzaile gehienak erdaldun izatea.

Beraz, ikusten dugunez, Euskadi eta Euskal Herria izendapenek tablero eta fitxa ezberdinak ezartzen dituzte. Hori kontuan hartuta, bakoitzak bere onorioak atera ditzala. Erdi Aroan, substantzia bere izena baino lehenago zegoela erabaki zuten, arrosa, izendatua izan edo ez, berez existitzen baitzen. Arrosa, ez azalorea.

# Atapuerca, hortzetik hitzera

Iaz ETB telebistan poz-pezik ikusi nuen Juan Luis Arsuaga, hortz bat eskuan. Ez zen gutxiagorako! Izan ere, hortz hori, aurreko hagin bat, alegia, arbaso batena omen zen eta Atapuercan aurkitutako azken emaitza. Giro horretan eta aurkezlearen galderari erantzuten, baietz, aurkikuntza horrek, nola edo hala, orain arte uste zutena gailendu egiten zuela zehaztu zuen, eta laster azalpen berria izango genuela: “la buena”.

Ados nago Arsuagarekin “la buena” ren berri-rik oraindik ez dugu jaso; baina, ez zait iruditzen prestatzen ari direnarekin konformatuko naizenik. Bi arrazoi-ildotatik azter daiteke gaia: Antropologiatik zein Hizkuntzalaritazatik.

Hasteko, abiapuntutzat hartu beharreko galdera hau da: hortz bakar batengatik —orain dela milioi bat urte baino lehenago bizi zen hominido batena— jar al liteke hankaz gora hipotesi bat? Antropologian lehiatzen dauden bi hipotesi, monogenismoa eta poligenismoa, aztertu ondoren, “hipotesi ofizial” aren ahulezia aipatzeko, adibide gisa, *Homo neanderthalensis* aren auziari errepara diezaiokegu: ADNaren ikerketaren emaitzen arabera hominido honek ez du zerikusirik gure *Homo sapiens* arbasoarekin. Bestalde, ez ote digute neanderthalek erakusten Europak (euroasiak, nahi baduzue) bere ondare propioa izan duela eta horixe izan dela, hain zuzen, munduko eboluzioari eskaini diona?

Bigarrenik, galdetu beharko genuke gure arbasoak hizkuntza garatu ahala nola iritsi ziren emakume eta gizon izatera. Izan ere, ez dugu ahaztu behar, hondakin horietaz gain, gure arbasoetatik jaso duguna eta oraindik bizirik mantentzen duguna, mintzaira dela. Baina linguisten lanetara jo ezkerreko galdera da nola iritsi gaitzekoen ama-hizkuntzaraino. Ez da lan erraza, are zailagoa premisa hori okerra bada. Alegia, lehenengo hizkuntzaz arrastorik ez badago. Hala ere, linguistak buru-belarri ari dira munduko hizkuntza guztiak familiatan kokatzen. Ez alferrik!

Europan bertan ere badago hizkuntza bat linguisten planteamendu guztiak apurtzen dituen: euskara. Bai, euskararen erronka gure eskuan dugu. Dakigunez Pirinio mendikate bi aldetan,



Argazkia: “Atapuerca y la evolución humana” erakusketatik hartua.

Garona eta Ebro ibaien artean izan da beti. Eta lurralde horri begirada bat ematen badiogu, berehala konturatuko gara bere koherentziaz eta bere osotasunaz.

Funtsean hipotesi berri hori azaldu baino lehen, “hortzetik hitzera” joan beharra dago eta norabidea aldatu: *Atapuerca, hortzetik hitzera*.

Izan ere, azkenean, alferrik da lehenengo gizon eta emakumea bilatzea, horien aurretik beste aita-ama batzuk izango direlako beti; gainera, bizia uretan, itsasoetan, hasi bazen eta hortik lehorrera zabaldu baziren gizaki bizidunak Lurra osorik bereganatu arte, itsasoak alferrik zatikatzen ari gara.

(Egilearen oharra: Artikulu hau egindako ikerketa lan baten lagin bat da. Lan osoa irakurtzeko: [www.idazten.com](http://www.idazten.com))

Juanmi Munariz



# ilunbideetan

Orduak eta orduak zeramatzan ikasten, burua apunteetatik jaso gabe, baina azkenerako kostea egiten zitzaion aurrera egitea, nahi baina ezina zen berea. Ikasturteko azken azterketa zen gainera, bereztat denetatik zailena. Urduri zegoen, akituta; beraz, azkenean, etsita, apunteak gorde eta ohera sartu zen, hurrengo egunean jarraituko zuelakoan.

\*\*\*

Bat-batean baso ilun batean ikusi zuen bere burua. Ilargi betearen argitasuna baino ez zuen lagun eta honek erakusten zion bide misterioitsuari heldu zion. Ez zeukan beste irtenbiderik. Senak aurrera egiteko agintzen zion, bihotzaren taupada nekazinen erritmoan. Ezin zuen ezer ikusi, ilargiak foko bat bailitzan argitzen zion bidezidorra besterik ez; entzun ere ezer gutxi, bere arnasestu itogarria noizean behin. Aurrera egiten zuen itsu-itsuan, ez zen atzera begiratzen ausartzen.

Aldapatxo bat igo eta bat-batean ke usaina nabaritu zuen, baina argitasunik ez. Eskuinerantz begiratzean, urruntasunean argia begiztatu zuen. "Sua" oldoztu zuen. Ilargiaren argitasunak ere hara eramaten zuen eta pentsatu ere egin gabe su aldera abiatu zen. Beldurraren beldurrez dardarka. Haitzulo bat zen.

Sartzeko, hasieran burua makurtu egin behar izan zuen apur bat, baina barrutik oso handia zen. Barruan kexu batzuk entzuten zituen eta hipnotizatu antzean, kexuak zetozen tokirantz joan zen. Katetzar batzuk ikusi zituen eta horietako batzuek lotuta hainbat gizon. Denak argal-argal, hezur eta azal baino ez ziren. Gerritik gora biluzik zeuden eta saihetsak gorputzetik atera beharrean. Indarge zeuden, kateetatik askatzeko inolako indarririk gabe. Atzean mugimendu moduko bat nabaritu zuen eta oihu ito batekin atzera begiratu zuen, lehen aldiz. Ez zegoen inor, suak horman sortzen zituen itzalak baino ez ziren. Baina, itzal horiek norenak ote ziren galdetu zion bere buruari. Gatibuenak ezinezkoa, erdi hilik zeuden eta ez zuten zirkinik ere egiten. Izu-ikarak arnasa ere eten egin zion eta beldurrak janda ihes egin nahi zuen, baina bere baitan zerbaitek gelditzeko agintzen zion.

Gatibuak hitz egiten hasteaz batera, itzalak ahaztu zituen. Zerbait esan nahi zioten, baina ez zuen

ezer ulertzen. Hizkuntza hori guztiz ezezaguna egiten zitzaion. Ezin zuen sinestu aurrean zuena, hainbat gizon hilzorian, mintzatzeko gai ere ez zirenak. Negar egin nahi zuen, baina ezinezkoa egiten zitzaion. Ezin zuen oinaze hori gehiago jasan, baina alde egiten ere ez zen ausartzen.

Handik gutxira, haitzuloaren sakon-sakonean zegoen presoetako bat zutitu egin zen, nekez, baina kateetatik libre. Ezaguna egiten zitzaion aurpegia, nonbaitetik ezagutzen zuen, seguru zegoen. Eskumuturrak eta orkatilak odoletan zeuzkan, baina salbu zegoen. Kateetatik askatu nahi zituen besteak, libre ikusi nahi zituen, baina bazekien lan hori euren zela. Askeak izateko eta eguzkitara ateratzeko, kateetatik askatzeak dakarren sufrimendua gainditu behar zuten. Ez zegoen besterik.

Azkenean, gehiago ezinean, biak haitzulotik aterara ziren, eguzkia ikusteko itxaropenaz; baina han behar lukeen eguzkiaren orde, ilargiak jarraitzen zuen.

\*\*\*

Halako batean, iratzargailuak esnatu zuen. Erlojua eskuetan hartu eta goizeko 12ak zirela ikusi zuen. Beranduegi. Hurrengo egunean filosofiako azterketa gainditzeko gogor ikasi beharra zuen. Gainera, ez zekien filosofia irakaslearekin amets egin izana seinale ona ala txarra zen.



Igone Meaza

# oinutsik

Zapata beltz dizdiratsuak aurrera doaz, sendo, pauso bakoitzean adokinetako laukitxoak pitzatu nahi balitu bezala. Eskubiko eskuan maleta darama. Beltza hau ere. Ezkerreko besoan jaka zintzilikaturik du, dotoreziaz. Autoak, zuuuut...! zuuuuut...! igarotzen dira bere ondotik. Klok-klok, klok-klok, parez pare datozen zapatak eskibatzen ditu, sorbaldarekin keinua eginez batzuetan, ezker –eskuin eta alde-rantziz mugituz besteetan. Sinetsi nahi ez badu ere, zapata pareak besterik ez da hiriko abenida zapatatsuetan.

Erlojuari begiratu dio. Denbora sobran du oraindik. Beraz, hutsik aurkitu duen bankuan utzi du maleta beltza. Gorbata lasaitu du lehenik eta ingurura begira jarri da. Damutu egin da metroko atarian eman dioten egunkaria minutu eta erdian gainbegiratu ondoren zakarretara bota izanaz. Bankuan esertzeko keinua egin du. Baina ez. Aurrera egin dute zapatek. Bidean doala pentsatuko du, denbora non alferrik galdu. Burubelarri hortan ari dela, hara non ikusi duen emakume beltzaran gazte bat, belunikaturik eta aurrean hiru hankako aulkitxo bat duela. Bere parean geratu da, eta eskuinteko zapata jarri dio altzariñoaren gainean. Laster hasi da emakume beltzarana zapiaren bi muturrak esku banarekin hartu, eta hara eta hona zapataren gainazala laztantzen. Betunak lehen zegoena baino are dizdiratsuago utzi du. Emakumeak bere iztarretara bildu ditu eskuak, eta ezkerreko zapata aulkitxoan ikusi duenean hasi da osteratzen, txintik esan gabe, burua altxa gabe. Lana amaitu duenean, klink! egin du zapatadunak emakumearen latoizko potera bota duen txanponak. Bideari ekin dio osteratzen.

...

Atzo bezain dotore irten da gaur etxetik. Pauso arinez egin du metrora arteko bidea. Metro atarian eskaini dioten egunkaria hartu eta presaka jaitsi ditu eskilera mekanikoak. Bi geltoki harago jaisten da. Egunkaria metroko irteerako zakarrontzira bota du, gaur begiratu ere egin gabe. Goizak betiko doinua du hiriko kaleetan. Garaiz doa, beti bezala. Zapata garbitzailearenean xahutuko du sobran duen denbora. Burumakur aurkitu du gaur ere. Protokolo bera jarritu du emakumeak. Hitzik esan gabe, begi-



rada hiru hankako aulkitxotik altxatu gabe garbitu du garbiaren gainean. Klink! egin du txanponak. Zain geratu da gizona, emakume adats beltzaranak burua noiz altxako. Ez da halakorik gertatu. Bere aurpegia ikusteko gogoarekin berrekin behar izan dio eguneroko bideari.

...

Pertsona inportanteen antzera doa kalean gaur ere. Egunkari meharrari muzin egin dio. Atzo eta herenegungo leku berean aurkitu du adats beltzaraneko emakumea. Gizonaren zapata dizdiratsuak ezagutu ditu. Eskubikoa lehenik, ezkerrekoa gero, zapata garbitzailea lanean ari den artean, bezeroa, begiratu diezaion erreguka ari da. Txanpona bere indar guztiekin estutu du kutxatxora bota baino lehen. Klink! egin eta emakumeak lurretik altxatu du begirada, parean duen gizon dotoreari begietara begiratzeko. Klink! egin du gizonaren latoizko bihotzak.

...

Atzo, herenegun eta hiru egun lehenago baino alaiago barneratu da abenida zapatatsuetan. Gaurkoan ordea bere zapatek ez dute dizdiz egiten. Zikinak daramatza. Zapata bakoitzaren puntan bihotz bat darama hautsez marraztua. Poliki doa, ez baitu artelana ondatzerik nahi. Ahoan zeraman irria harri bihurtu zaio bat-batean. Maitemindu duen zapata garbitzailea ez dago atzo, herenegun eta hiru egun lehenagoko lekuan. Burumakur, aurrea jarraitu dute zapata zikinek, noraezean. Goizero egiten duen bideak hiru egun atzera eskuratu zuen zentzua galdu egin da zapata garbitzailearekin batera. Inoiz ez da horrela sentitu: Oinutsik hiriko abenida zapatatsuetan.

*Leire Zubeldia*

# Larunbatero


Larunbatero ikusten zaitut. Larunbatero eserita zaude hiria zeharkatzen duen zubian. Larunbatero zain; zain, sosa baten truke, eta bitartean, bizitza aldamentetik pasatzen ikusten duzu, eta bitarte horretan, egonean zaude, presarik gabe esperoan.

Larunbatero, zuzenean begiratzen nauzu eta ni disimuluz, zure presentziaz ohartuko ez banintz bezala, azkar aldentzen naiz; gelditu gabe pasatzen naiz zure aldamentetik, ia korrika, zure begiradaren zorrotzasunak irauten duen bitarteko segundo horietaz salbu jarri arte. Eta zuk tinko jarraitzen dituzu nire pausoak, beldurrik gabe, ez baitaukazu ezer galtzeko beldurrik, dagoeneko kaleko gizon xumea zara, eskalea, bizitzaren bazterrean geratutako gizasemea, auskalo zein arrazoi medio.

Eta badakit zure begirada irribarretsua rekin topo egiten dudanean egun on esan behar didazula, eta orduan nire begirada beste nonbaitera desbideratuz, zalan-tzan egoten naiz, baina azkenean zure ondotik aldenduz, bideari ekiten diot harrotasun faltsu batez, zu hor egongo ez bazina bezala.

Larunbatero ikusten zaitut hiriko zurbia zeharkatzerakoan, eta errudun sentitzen naiz deus eman gabe zure begirada irribarretsua eskaintzen didazunean, trukean ezer espero gabe.

*Carmen Valois*



# boikot-eroa

Behinola ordenagailu aurrean eserita nengoe-la gogoratu nintzen lagun bati deitu behar nio-la. Berandu samar zen, gaueko hamarrak, eta beldur nintzen ez ote nuen ohean harrapatuko. Zenbakia buruz markatu nuen, burua gaueko ordu horietan ere primeran dabilkidan seinale. Gizon batek hartu zuen telefonoa, eta honela esan zidan:

–Zel nahi duzu?

–Gau on, Andoni naiz... Andoni Bustamante. Carlosekin hitz egin nahi nuke –esan nuen soltiltasunez, beste aldetiko doinu arrotzak baterre harridurarik eragin izan ez balit bezala.

–Hemen ez dago Caldos izeneko inol, babo alaioa! Ni Txin Pao naiz eta Hau Dtagon Lojo jatetxea da, txinatal jatetxea! –eta brastakoan eseki zuen.

Ezin nuen sinetsi. Agenda hartu nuen lagunaren telefonoa aurkitzeko, eta, bai, egia zen: okerreko zenbakia markatu nuen. Baina artean zenbaki hura gogoratzen nuenez, berriro deitzea erabaki nuen. Segituan Txin Pao delako hark hartu zuen telefonoa, baina hitz egiteko betarik ere eman gabe eseki egin nuen.

Irriño burlati bat artean aurpegian marrazturik neukala, agenda hartu eta telefono-zenbaki hura idatzi nuen, ondoan “Boikota” hitza erantsiz. Handik aurrera egunero deitzen nuen telefono hartara, hainbat aldiz gainera, gehienetan bazkal orduan, lan gehien izaten duten unean, ahalik eta gehien izorratzeko noski. Ustekabean letra bat ordaindu beharra, isun bat jaso, nagusiarekin sesioan ibili... edozerk balio zuen telefonoa hartu eta beste aldetik erantzunik jaso aurretik esekitzeko. Dei horiek nolabaiteko terapia ziren niretzat, besteak beste, lasaiago sentiarazten nindutelako.

Txinatarren pasadizoarekin nire boikot-zerrenda inauguratu besterik ez nuen egin. Gerora, zerrenda “beltz” hari kide berriak gehitu dizkiot. Esaterako, orain hiru hilabete Eroskiren aparkalekuan nengoen ni, adineko emakume bat bere plazatik noiz aterako zain, nire bolidoa ondo



aparkatzeko. Astiiiiiro-astiiiiiro zeraman kotxea emakumeak. Azkenean bukatu zuen, noizbait bukatu behar zuenez. Halako batean, hara non agertu zen furgoneta gorri bat, ziztuan, eta lekua kendu ez zidan, bada, kabroiak! Furgoneta Mercedes Vito bat zen eta “Fontanería y Saneamientos Miguel” zeukan idatzita kanpoaldean. Telefono bat ere bazekarren, beraiekin harremantetan jartzeko. Ni bozina jo eta jo aritu nintzen harik eta furgonetaren barrualdetik bi kankailu atera ziren arte, giltza ingeles bana eskuan zermatela. Txarto begiratu zidaten, lekua neuk beraiei lapurtu izan banie bezala.

Handik ondo lumatuta aterako nintzela ikusirik, azeleragailua barruraino sakatu eta ziztu bizian alde egin nuen handik. Etxera iritsita, zenbaki bat idatzi nuen agendan, iturginen telefonoa, gogoan ondo txertatuta neukana. Mendekuaren ernamuina airean zen berriro. Biharamunean hasi zen iturginen kontrako kanpaina.

–“Fontanería y Saneamientos Miguel”? –galdetu nuen antxume-ahotsaz.

–Bai –beste aldetik erantzun zuen neska batek.

–Zera... jakin nahi nuke zenbatean aterako zaidan komuna eta bainuontzia aldatzea. Berdin zait prezioa. Eta entzun dudanez, zuen enpresaren Mercedes Vito gorri bat daramaten bi langileak dira onenak. Horiexekin lan egin nahi dut.

–Bai, zuk Miguel eta Fernandorekin nahi duzu –esan zidan beste aldekoak–. Hemen da Miguel. Oraintxe jarriko da.

Amarrua bideratuta zegoen.

–Nor da? –gizon baten ahots lakarrak ernatu ninduen.

–Putakume galanta egina zaude zu!!! –antxumea aker anker bihurtu zen bat-batean. Ez nuen gehiagorik esan, eta eseki egin nuen.

Gero, neure agendan, iturginen telefono-zenbakiaren ondoan, beren izenak eta “Boikota II” hitza idatzi nituen. Hiruzpalau hilabetez aritu nintzen bi frontetan, noiz bati noiz besteari deika. Baina egun batean pentsatu nuen auziei bukaera emateko garaia iritsia zela; ez nekien nola, ordea. Sei bat kalimotxo edanda zerbait otu zitzaidan. Lehenengo, txinatarrei deitu nien:

–Nol da? –Txin Paoren txinatar doinuak belarriak likistu zizkidan berriro ere.

Orduko hartan, arnasestuka hasi nintzaion, batzuetan hasperenak eta besteetan ulu “kitzikagarriak” egiten nizkiola. Baina ez nuen eseki.

–Zu al zala belilo? Hol al zaude olaindik? Banean uzten ez banauzu, hil egingo zaitut!!! –hitz egiteko aukera eman nion, eta ederki aprobeixatu zuen kabroiak. Eskuzabalegia naiz batzuetan.– Nor zalen jakingo banu, lalutu egingo zintuzket, benetan diotsut –errosarioa botata pitin bat lasaitu zen.

–Miguel dut izena eta “Fontanería y Saneamientos Miguel” en egiten dut lan, eta ziur nago ez duzula potrorik ordu erdi barru plaza nagusian egoteko –bota nion hitzak al bait ondoen ahoskatuz, den-dena uler zezan.

–Ezetz? Olaintxe noa halantz. Txikitu egingo zaitut!!! –gizajoak uste zuen ni ebain-ebain egingo ninduela.

Segituan iturginen enpresara deitu nuen:

–Miguel?

–Bai, neu naiz. Eta zu nor zara? –galdetu zidan.

–Aspaldi honetan deika ibili zaizuna. Ohaltu naiz gu bion alteko alazoa aulez aule konpondu behal dugula. Gainela, ezin dut luzeago elaman zu ez ezagutzea. Txin Pao nauzu, Dlagon Lojoko jabea. Potlorik baduzu, etoli oldu eldi balu plaza nagusila, eta ezagutuko nauzu.

–Hantxe izango naiz, bai!!! Galtzerdi zikin batekin itoko zaitut!!! –Miguel sutan zegoen. Eta besterik gabe eseki zuen.



Hirugarren dei bat ere egin nuen. Poliziari. Esan nien plaza nagusian nengoela eta nire bikotekide homosexuala akabatu nahi nuela. Nire bolidoan azkar sartu eta plaza nagusirantz egin nuen. Ez dut sekula ahaztuko egun hartakoa! A ze borroka! Jende piloak elkarri egurra ematen han! Txinatarrek batetik eta iturginak bestetik; ez baitziren beren nagusiak bakarrik joan. Ikuskizun mundiala! Aparta!

Ikusitakoak ikusita, espero dut, egunen batean telefonoz deitzen badizut, zuk adeitsu eta jator erantzutea. Badakizu nola jartzen naizen bestela.

*Inaxio Lopez de Arana*



# badator autobusa

## Hiru eskailera zora

Ordaintzeko dirua ateratzen hasi naizenerako akordatu naiz txartel-bono berria dudala eta, "i, itxaron" esanda karteratik ateratzen hasi naiz, baina, hara! ez dut ba pelukeriako tarjetatxoa aterra! eta harekin aktibatu nahi izan dut "piiit" a. Txoferrak, urduri "con eso no creo que puedas..." ihardetsi dit. Barkatuka bigarren txartel bat... hura ere ez, txoferrak..."ya tendremos que esperar, ya..." Azkenean asmatu dut txartel egokia ateratzen eta aktibatu da ditxosozko txipa, "piiit".

Autobus barru guztia niri begira neukala iruditu zait; zer autobus barrua! Mundu guztiko autobus barru guztiak niri begira zeuden eta nik, irribarrez ezkutatu nahi nuen lotsa nabarmenki agerian utziz, pasilloan aurrera egin dut, leiho kontra bat libre ikusi eta bertan zokoratu naizen arte.

Berrogei minutu inguruko bidaia daukat aurretik eta berokia erantsi dut, izter gainetan egokitu eta tira! sosegatu naiz. Ez gidatu behar izanaren abantailez pentsatu dut, minutu batzuk aurreragoko atolondramendua arindu guran.

## Isilik autobusa.

Bide zaharretik hartu dugu, bide estu kurbatsua da, aspaldikoa. Autobus gutxik hartzen du bide hau, egunean pare batek besterik ez. Errepide berriak baztertuta utzitako herri txikietako biztanleentzat apropos jarritakoak.

Amildegiei gainak hartuaz goaz gorantz eta trenbide ordukoa, gaur bide-gorri bilakatua, pare parean daramagu, laguntzen bezala.

Treanean ibiltzen gineneoak gogoratu ditut, koxe gutxi zireneko garaia, gehienok treanean ibiltzen gineneko denborak. Udako egunak gogoratu ditut, aita-amak eta anai-arrebok, otarrea eta motxilak hartu eta egun pasa paraje hauetara etortzen gineneoak.

Estazio txiki-txiki batean uzten gintuen trenak; pasatu berri dugun lautada estuan zegoen, gaur haren arrastorik ez bada ere. Handik, gure herri-tik pasatzen den erreka iturburuko bidea hartzen genuen oinez, mendi bidetan, urak putzu eder bat egiten zuen tokira iritsi arte....

Telefono bat da. Nire atzean. Autobuseko isiltasuna bi aldiz hautsi da; lehendabizi telefonotxoaren salsa doinua izan denean eta gero emakume baten ahots-goran hitz egin beharrekina. Jakin-mina piztu zait, horregatik begiratu dut atzera, denontzat hitz egiten zuena nor zen jakitearren. Jarleku artetik ikusi dut ilea horiz oso gaizki tindatua zuen emakumea zela, autobusaren zain geundela atentzioa eman didan hura bera.

Jendea mugitu egin da jarlekuetan, erosotasuna topatu nahian eta, esango nuke, bidaiari guztiok, nahi ez eta ere, elkarrizketan sartu gaituela ile-horiak.

Minutu luze batzuetan aritu da etxeko kontuak aireratzeko; horrela jakin dugu Marirekin haserre dagoela eta Antonio kabroi bat dela.

Halako batean eta behingoz, moztu du. Telefonikarekin tratatu bereziren bat izango duela otu zait, bestela garesti aterako zaizkiola eta haserreak.

Egokitu gara berriz bidaiariok jarlekuetan ahal zenik eta erosoan. Kanpoan hotza igartzen da, behe laino itxi itxia, honaino sartzen ez dena, hotzak ezin baitu kristaletik barrura egin, eguzkiaren beroak bezala.

## *Isilik autobusa.*

...Erreka bazter hartan egokitzen ginen, gaztainondo sendoaren magalean. Oinetakoak erantzi eta, enbor zulo jakin batean hurrengorako gordetzen genituen uretan ibiltzeko zapatila zaharrak janzten genituen. Zapatila zaharrak edo gomazko sandalia marroiak; izerdiarekin batera hanketan markatzen zitzaizkigun sandaliak.

Han ikasi genuen anai-arrebok igerian; lau anai-arrebok eta amak.

Bizirik bizi zen gure aitak erakutsi zigun denoi igerian, umetan erreka ibiltzen zeneko kontuak kontatzen zizkigun bitartean. Besoak gure gorputz azpian jartzen zituen eta guk beso eta bernei eragiten genien ganoraz. Gero, distantzia motzean, besoak zabalik itxaroten gintuen, hondoratzen ginela sumatuz gero, beso haietan hartzeko gertu. Besoak zabalik gogoratzen dut aita eta begietan "egin dezakezu" betikoa. Distantzia geroz eta handiagoa zen aitaren besoak eta gureen artean, bakarrik moldatzen ikasi genuen arte.

## *Distantzia.*

Eta erreka eta erreka ertzean, gaztaina eta lizar artean pasatzen genituen udako hainbeste egun, batera, etxekook.

Sua pizten genuen arroza egiteko edo amak aurrez prestatutako patata tortilla, arrain albardatu, piper berde eta esne-gainaz egindako bizkotxoak jan, harri gainetan biribilean jarrita...

## *Isilik autobusa.*

Eguzkia gailendu da lainoen artetik eta kristalaren beste aldetik hurbildu zait larrua berotzera, eta urrun haietatik memoria, barruak gozatu guran.

Irribarrea eragin didate biek ala biek.

Motorraren "durundurun" a, lo-kanta, bideko zulo batek eragin duen "klak" ak eta saltoak berriz leiho alde honetara ekarri nauen arte.

Eta hemendik zentro komertzialak eta etxe handiak dira nagusi bazterretan.

Berokia jantzi dut. Txartel-bonoa atera dut poltsikotik. Ilehoriaren atzetik egin dut pasilloa. "Piiit".

## *Hiru eskailera behera.*

Badoa autobusa.

Eta ni.

*Karmele Igartua Benzoa*

# lanpostu berria

Giza-Baliabideetarako arduradunak eraikineko bosgarren solairuko korridore zabal, luze eta dotoretatik lagundu dio. Bat-batean, ate baten aurrean gelditu, zabaldu eta honela esan dio:

- Hauxe izango da zure bulegoa.

Hori esanda, ate itxi eta hor barruan utzi du Mirari, aho zabalik eta ikusten duena sinistu ezinik. Ia bere etxe osoa baino handiagoa da bulegoa. Dekorazioa minimalista da baina oso funtzionala: mahai zabala, besaulki ergonomiko bat, beste besaulki bat mahaiaren beste aldean. Mahaiaren gainean ordenagailu portatil moderno bat. Ezkerrean, beste mahi borobil bat, aulkiz inguratuta, bileretarako agian.... Eskuinean, armairuak, fitxeroak... Ate hau? Komun! Ezin du sinistu. Mahaiaren atzean dagoen leiho handira hurbildu da eta handik Bilboko Gran Via kale zarata-tsua ikus dezake bere zabaltasunean. Mahaiaren eseri da alde horretan, alegia, nagusiaren aldean zer sentitzen den jakiteko. Bera, orain arte, beti esertzen zen -eta beldurrez, gainera- mahaiaren aurreko eserlekuan, nagusiek deitzen ziotenean espediente baten berri emateko. Orain berak izango ditu idazkaria eta espedienteak prestatzeko laguntzaileak. Norke esango ziokeen urte batzuk lehena-go!

Hamar urte pasatu dira entzute handiko abokatu-bulego horretan sartu zenetik. Ilusio handiz sartu zen, bertan lanpos-



tu bat lortzeagatik zorte handia izan zuela pentsatuz. Hala ere, berehala itzali zitzaion ilusioa. Bere lana epaitegietan aurkeztu beharreko kasuen espedienteak goitik behera aztertzean eta prestatzean zetzan, gero, abokatu famatuek auzietan defenditzeko. Beraz, sagu-lana egin behar izaten zuen, nahiz eta bere promozioko notarik onenak atera eta bi master egin atzerrian. Oso urte gogorrak pasatu ditu entzute handiko abokatu-bulego horretan. Lanak ez du beldurtzen baina abokatu handiuste horien jarrerak bai. Despotia hutsak dira, langileak esklabo balira bezala tratatzen dituzte.

Duela pare bat urte alde egitea erabaki zuen. Senarrak ere horretara animatzen zuen, emaztearentzat egoera jasanezina zela ikusten zuelako. Dena den, ezin izan zuen. Baja boluntarioa eskatzeko zegoen egunaren bezperan, inoiz ahaztuko ez duen telefono-dei bat jaso zuen. Telefonoaren bestaldeko ahotsak jakinarazi zion senarrak auto-istripu bat izan zue-

la lanetik etxerako bidean eta oso larri eraman behar izan zutela ospitalera. Hara heldu zenerako hilda zegoen. Ez zuen astirik izan, ezta azken agurra emateko ere.

Bi urte hauek oso gogorrak egin zaizkio: alde batetik, bi seme-alabak aurrera atera behar izan ditu berak bakarrik eta, bestetik, lan nazkagarri hori uzteko erabakia erabat baztertu eta, arazoak gorabehera, ditxosozko abokatu-bulego horretan jarraitu behar izan du. Gainera, ordu gehiago sartu behar izan ditu gastu guztiei aurre egin ahal izateko. Guzti horren ondorioa izan da lanean lehen baino okerrago pasatzea, seme-alabekin disfrutatzeke ia astirik ez izatea eta oso bakarrik sentitzea. Zein zaila egiten zaion ohetik egunero jaikitzea Jon inoiz ez duela berriro ikusiko jakinda! Bere irribarrea, alaitasuna, aldarde ona... Bere presentzia, bere laztanak, bere musuak... Bi urte pasa arren, ez da ohitu berara gabe bizitzen. Ez du norekin konpartitu eguneroko kezkek, pozak, seme-alaben txikikeriak,



Dena den, badirudi tunelaren amaieran beti argia dagoela eta orain une hau disfrutatzea tokatzen zaiola. Hainbeste ahalegin egin ondoren, hainbeste sufri-mendu jasan ondoren, erosotasunez eta lasaitasunez aurrera jarraitzeko unea heldu zaiola ematen du. Izan ere, duela hiru hilabete, abokatu-bulegoaren ardur nagusiaren semeak hartu zue-netik, gauzak erabat aldatu dira: giroa atseginagoa da, jendea ez dago hain erreta, nagusi berria ez da besteak bezain tiranoa. Horretaz gain, hainbeste urte lanean bertan eramateagatik eta duen curriculumagatik, berari bulegoko bazkide izatea proposatu dio nagusi berriak oso baldintza onetan.

Pozez zorutzen dago Mirari.... Sinistu ezinik...

- Nagusiak bere bulegoan ikusi nahi zaitu.

Idazkariak atera du Mirari pentsamendu horietatik. Irribarrez altxatu da aulki ergonomiko modernotik, traje berriko gona lisatu eta nagusiaren bulegorantz abiatu da bosgarren solairuko korridore dotoretatik barrena, bere takoidun oinetako berrien zarata entzuten. Bulego barruan sartu denean, hodei batean sentitzen da, seme-alabei hainbestetan irakurri dizkien ipuin horietako printzesa... Horregatik ez da konturatu nagusi jator berriak giltzaz itxi duela atea eta praktetako poltsikoan sartu duela.

- Beno, Mirari, eseri lasai. Hitz egin behar dugu, lan berriaren truke, ordaindu behar duzun prezioaz...

*Maku Noriega*

# lore artean



Bada lorategi bat distiratsua, eguraldi onak beti landareak loretan edukitzen dituen. Adi egonez gero, barre algar ezkutu bat entzun daiteke lore artean. Han! Ume bat saltoka! Ume ilehori irribarretsu bat da, saltari. Bere burua loreen gainera botatzen du, behin eta berriro, petaloen itsasoan murgiltzeko, eta, desagertzean entzuten dira barre algarak. Pozik dago. Eguzkia ere bai, distiratsu. Loreak ere bai, zabal-zabalik.

Bat-batean, ume ilehoriari irribarrea ezabatu zaio ahotik, eta begirada goibeldu. Zaldu bat ikusi du triste, handia, gurdi bati tiraka nekaneke eginda, buztinez goitik behera zikinduta. Begi negarberak ditu lurrera begira. Umeari salto egiten jarraitzeko gogoia joan zaio, ezin du gehiago barrerik egin. Zaldiarengana hurbilduz doa astiro, loreen artean bide eginenez. Eskuaz lepoa laztandu dio zaldiari ume ilehoriak, eta zaldiak burua makurtu du, fereka goxoak eskertuz. Buruak elkarrengandik hurbil daude, eta bien kopetek elkarukitu dute. Begiak itxi dituzte, lehendabizi umeak, gero zaldiak.

Hasperen bat elkarrekin.

Zaldiak, begiak ireki ditueanean, hara! Kristalezko tantatxo bat dakusa ume ilehoriaren esku artean, tanta garden lodi borobil bat. Umeak

lore bat jaso eta bertan pausatzen du tantatxo, eta, apurka-apurka, urtu egin da petaloen gainean, eta... Hamai-ka koloreko ostadar bat!

Ostadarra goraka abiatu da ziztu bizian, koloretsu zeru oskarbian. Zaldiak gurdiko loturak askatzen nabaritu ditu, astuntasuna soinetik kenduta, libre! Pozik, ume ilehori bere gainera igo du, eta galopean hasi dira, ostadarraren koloreen gainean gorantz, aske, irribarretsu, gero eta azkarrago, bihotzak taupaka, danbaka, taupandabaka, eta ostadarraren adarraren puntaren puntara iris-tean, ieup! Salto egin dute biek airean, han goi-goitik, begiak itxita eta irribarretsu, beheraka beldurrik gabe, petaloen itsasoan murgiltzeko...

Orain, adi egonez gero, barre algar ezkutu bat entzun daiteke berriro, eta baita irrintzi bat ere.

*Ekaitz Goienetxea*

# zubi irekia

GEFIROFOBIA: behera begiratzean sentitzen duzun bertigoa eta zubia behera eroriko den beldurra. Baina zubi gutxi erori dira azken urteetan! Ez naiz burdinazko zubiez ari, elkarren arteko amildegia gainditzeko eraikitako zubi afektiboez baizik. Zubi horiek eroriko diren bertigoaz ari naiz. JON BENITO

Txilen, Neruda jaio zen tokitik hurbil, San Pedro herria oihana eta 'Infernuaren Aho-tsa' deritzan amildegia artean isolatuta dago. Eta hutsune hori lotzeko ahaleginean, zubi baten hezurdura amaitugabea aurki daiteke.

Herrikoei galdetu nien baina inorkez zuen zubia erdi eraitsirik lagatzeko arrazoia eza gutzen: San Pedrorra heltzeko bide motzena handik pasatzen bazen ere, gobernuak alternatiba moderno eta azkar bat aspalditik egin zuen. Halere, tabernaren aurrean, nire jakingura ikusita, harrizko bankuan eguzkitan jazarrita zegoen agure batek 'zubi irekia'-ren istorioa kontatu zidan.

1973. urtea izugarri latza izan zen Txilen: aberatsek eta eskuinak bultzatutako greba orokorrak, estatu-kolpea, Allende presidentearen erailketa, diktadura, genozidioa. Pinotxetek berehala arazketa prozesua jarri zuen martxan komunista, eta, oro har, bere esanetara belaunikatzen ez zen edozein garbitzeko. Hori honela, herio karabana herri-rik herri abiatu zen susmagarrien bila. Gutxi batzuk Santiagora preso bidali arren, gehienak bertan akabatzen zituzten besterik gabe. Baina San Pedron naturak ezarritako oztopoa ezin zuten saihestu: herrira sartzeko bide bakarra 'Infernuaren ahotsa' gurutzatzen zuen enbor zubia zen. Eta hiltzaileak gerturatzen ziren bakoitzean, ikusezineko esku batek zubiaren sokak mozteten zituen biktimei ihes egiteko denbora emanaz.

Pinotxetek, amorrubizian, harrizko zubi bat eraikitzea erabaki zuen, bide batez bertiko bere boterea gogoratuko eta laudatuko zuena. Txile osoan, alabaina, ez zioten hain

amildegi zabala eta sakona menderatzeko gai zen inor aurkitu. Azkenean, Patagoniak bere erretirotik Hegoamerikako zubi-egilerik famatuena, Salomon Hiram izenekoa, ekarrarazi zuten. Diktadoreak modernitatea eta justizia Txileko bazter guztietara eroteke bere gurutzada santuan laguntza eskatu zion.

Hiram jaunak ez zien Pinotxeten berbei apenas jaramonik egin, amildegia deskribapenarekin liluratuta baitzegoen: testamentu moduko zerbait ikusgarri bezain ahaztezina lortzeko aukera emango ziona..

San Pedrorra bizitzera joan eta, hilabete askoko lana izango zuelakoan, 18 urteko alaba berarekin eraman zuen. Emaztea eta bigarren alaba erditzean zenduak zirenez, zubi-gintza eta alaba ziren munduarekin lotzen zuten interes bakarrak.

Inongo diru mugarik gabe, gogoz lotu zitzaion lanari. Mekanismo berezi bat garatu zuen, askok lehenago kimeratzen izan zutena: zutabeak ez ziren amildegia hondotik igoko, alboetako hormetatik baizik. Horretarako, zutabeen lana beteko zuten bi beso diseinatu zituen: ukondoek galtzadari eutsiko zioten eta eskuek, haitzari. Nolanahi ere, urtebete igaro zuen arrakasta barrik, zirriborroetan marraztutako prototipoak astunegiak baitziren. Ñabardura txiki bat falta zitzaion kontzeptua borobiltzeko eta puntu horretan gelditu zen trabatuta.

Gauetan, herriko maisuaren konpainiaz gozatzen zuen. Mutil adoretzu eta idealista zen, hiritik alde egin zuena nekazariei kulturaren bitartez miseria gainditzeko laguntzeko. Alaba eta biak berehala maitemindu ziren eta elkarrekin joaten ziren herriko asan-



bladetara. Neska argia izaki, laster bereganatu zituen laborarien aldarrikapen eta premiak.

Horregatik, egun batean Hiram jaunaren lanaren muina jakinda, boteredun eta sarraski-egileekin ez kolaboratzeko erregutu zion, denen laguntza giltzarria zela bidezko gizartea sortzeko borrokan. Aitak, bere asmo onak ikustean irribarre egin zuen: gartzetan bera ere politikan ibilia zen eraikuntzaren mundu magikoan murgildu arte. Bizitzan pertsonen artean zubiak eraiki behar zirela erantzun zion, ez bota, eta bere lanak on egingo ziola herriari.

Alabak negarrez alde egin zuen eta zubi-egilea kontzentratu ezinik gelditu zen. Pentsamendu nahas-mahas horretan entzun berri zuen berba bat gailendu zen: giltzarria. Antzinako arkuak ixten zituen harria zen, erdikoa, zama guztia jasaten zuena. Hori barik arkuak ez zen mantentzen. Bat-batean, oso garbi ikusi zuen: zubi berriak giltzarriak behar zituen arintasunari sendotasuna emateko; diseinua amaitua zegoen.

Bigarren urte baten bueltan, beirazkoa zirudien artelan mehe bezain gogorra amaitu eta 'Etorkizunerako atea' izendatu zuen. Hiru arkuetako harriek, katedral gotikoen teknikari jarraiki, ez zuten argamasarik behar, elkarrengan bikain ahokatzen baitziren, giltzarrien bidez pisua banaturik.

Inaugurazioaren aurreko gauean soldaduek, pazientziari ezin eutsirik, herrian ilunpean sartu eta gorri nazkagarri guztiak arrastaka bildu zituzten plazan. Hiram jaunaren etxe-

ko atea ostikoz bota eta alaba iletik tiraka hartu zutenean, akats bat zela ihardetsi zien, Pinotxetek berak bidalia baitzen zubia eraikitzen. Soldaduak, duda-mudan, diktadorearen enkarguz joandako jeneralararen aurrera eraman zuten. Honek, irribarre faltsua ezpainetan, sentitzen zuela eta salbuespenik ez zegoela jakinarazi zion. Alaba, maisua eta herriko susmagarri guztiak zubira eroan eta handik amildu zituzten.

Biharamunean goi-karguz bete zen 'Etorkizunerako atea'. Oihan ertzean jenerala inaugurazio-zinta moztu eta bere soldaduekin erdira abiatu zen, umore ezin hobean.

"Gaur, zubi honen bitartez, gobernuak atea ixten die komunista eta aberriaren traïdoreei. Hemendik aurrera, justiziak bere bidea egingo du." Eta txanpain botilak ireki zituzten euren garaipena ospatzeko, musika banda eta guzti.

Hiram jaunak, bertan egotera behartua, mailu bat atera eta, erdiko begiaren gainean, bere indar guztiak egundoko talke eman zion arku-giltzarri nagusiari. Soldaduak erreakzionatu baino lehen, beste bi kolpez giltzarria erauzi zuen. Zubiaren oreka hautsita, hartxintzarrez osatua balego bezala desegin zen airean, bi besoak bakarrik geratu ziren haitzari helduta.

Agureak amaitzeko esan zidan moduan, ate hori ez dute sekula ere zarratzea lortu.

### *Izen Yoseba*



# hogeitazortzigarrenean...

Iritsi aurretik zakurrek sumatu zuten bisitaria. Ehizarako irakatsitako zakur haien usaimenak, azken egunetan egunero etortzen zen gazte haren aztarna usaindu zuten. Aireak aurreratutako zeinu bereizgarri hura nahikoa zen zakurren artean aztoramendua sortzeko. Egunero lez, ezer egin aurretik, zakurrak eskuaz laztandu zituen, bera nor zen zakurrei adierazi nahirik. Bi poltsa zeramatzan eskuetan. Bata zakurrentzat eta beste sarrerako atean zegoen eskulekutik zintzilik utziko zuena. Zakurrek, bakoitzak beraien jantokia zuten eta bertan banatzen zituen animalientzat ekarritako hezur eta haragiak. Ondoren atariko atearen eskulekura gerturatu zen. Azken poltsa hura egunkari zahar paperez bilduta zakurrak bailiran. Hura bertan zintzilik utzi eta bueltan joan zen.

Bueltako bidea luzea ez izanagatik ere, egun haietako egoerak zuhurtzia bereziaz aritzea eskatzen zuen. Etxera joan aurretik plazara jaitzi zen. Normalean ezagunen batekin hizketalditxo bat egiteko aukera ez zuen galtzen. Ez bereziki hiztuna edota sinpatikoa zelako, baizik eta inor segika bazuen despistatu ahal izateko. Baina egun hartan ez zegoen inor plazan, besteak beste eguraldia ez baitzen bertan solasean aritzeko proposena. Egoera haietan bigarren aukera erabiltzen zuen. Elizan sartu eta bertan ordu laurden inguru egon ostean etxeratzea. Horrelakoetan herriko apaiza zen, portaera harekin harritzen zen bakarra. Jaietan monagilo joan beharrak, behin baino gehiagotan, elizaren inposaketa izan edota ez izatearen inguruko diskusioak izan baitzuten apaizarekin.

Egunero bide berdina egiten zuen. Bide berdina azken hogeita zazpi egunetan.

Baina hurrengo egunean bidea ez zuen inork egin. Poltsarik ez ateko eskutokian. Hogeita zortzigarren aldiz zakurren zaunkak ez entzutean, jakin zuen Matiasek, lehenengo egun hartatik mantendu zuen esperantza ahitua zela.

Bulegoko armairuan gorderik, etxeko leihoak itxirik, zakurrak ziren kanpoaldeko kontaktu bakarra. Zakurren sentimendu triste eta desanparatua nabari zuen barrenean. Beldurra eta deses-

peroa nahasten ziren momenturo. Etxea hustu zenetik, ez zen argirik pizten. Etxean inor bizi ez zen itxura gorde zuen inork salatzeko beldurrez. Eguneko orduak eskutitzak idazten xahutzen zituen, lehenengo egun hartan erbesterako bidea hartu zuten emazte eta alabari zuzenduak, nahiz eta jakin inoiz ez zirela bere helburura iritsiko. Dena ondo zihoala idazten zuen. Dena planeatu bezala zihoala faltsuki esanez, lasaitu nahirik erbestean zegoena, baina idatzitakoa errealitatetik urrunegi. Egun batzuk igaroak ziren mugalaria agertu behar zenetik eta ez zen iristen. Hark ekarriko zuen askatasunerako bidea baina ez zuen abisurik utzi, eta horrek susmo txarrak ekartzen zizkion.

Alaba eta emaztearen argazkiak esperantza izpia pizturik mantentzen bazioten ere, Parisetik ekarri zioten errebolber zaharra prest zuen. Mahai gainean. Erabiltzeko prest egoerak horrela eskatuko balu. Egunero zekusan mahai gainean. Inoiz erabili ez bazuen ere, soldaduskan nola erabili zen erakutsi zioten. Alde batean, hiruna bala eta bestaldean arma. Heriotzak margotzen zuen mahai gaineko bodegoia. Makina bat urtetan, idatzi eta dokumentu ugari sinatutako mahai hartan. Oraindik ere, erabilitako lumek mahai gaineko eskritorioan zirauten, jadanik tinta lehorturik. Azken urteetan arkatzez idazteari ekin zion. Hautzaroarekin erlazionatzen zuelako maite zuen arkatzez idaztea, batez ere itzalak ere egin daitezkeelako eta batzuetan indartsuago eta besteetan suabeago. Marrazten erakusten zien maistra gogoan zuelako, gaztetako amodio platonikoa. Garai zoragarri haiek gogoratu behar zituelako goera larri haietan.

Janaria bilduta etortzen zen egunkari orrietan irakurria zuen: herrietako plazetan, armak banatzen hasi ziren, herriko gazteen artean. Aginte berriaren justizia banatzeko sortutako militar auxiliar erakundearen partaide izendatzen zituzten. Herrian probisionalki autoritate gorena ziren, kontrako agindurik ezean. Ordundik aurrera tiroz erabaki eta banatzen zen justizia. Hildako ugari izan zen, begiak estalirik buruan jasotako tiroz. Etsaiaren laguntzaile izateagatik susmagarri ziren guztiak atxilotuak edota erailak izan



ziren eta bere familikideak torturatuak nahiz bortxatuak.

Zakurrak zaunka hasi ziren. Bidean zetorren kamioi baten motorra entzun zen. Etxe aurrean gelditu ziren, buila artean kamioitik jaitsiz.

Behin eta berriz pentsatu zuen bezala, halako kasu batean egin beharrekoa praktikan jarri zuen. Bulegoan sartu zen eta berarekin zakurrak. Atea itxi. Momentu hartarako prestatutako zoruko egur zati bat altxa eta idatzitako eskutitzak egunkari zaharretan bildutako larruzko kartera batean sartuta bertan gorde zituen. Berriro egurra bere tokian iltzez lotu. Errebolberra eskutan bulego mahaiean eseri zen.

Eskaileran gora igo ziren kamioitik jaitsitako bi gazte. Eskuetan bi arma izanagatik ez zuten uniformerik. Duela bi aste, plazan banatutako armatarako eskubideen jabe ziren. Herrikoak ziren. Elkar ezagutzen zuten. Bai atxilotu edota torturatzen zituztenak. Baita tiro batez bertan akabatzen zituztenak. Besterik gabe beraiek horrela irizten ziotelako. Banatutako arma haiek garrantzitsu, boteretsu egiten zituzten eta horrek edozertarako gai egiten. Oraingoan hainbat egunetan ikusi ez zuten Matias Notarioaren etxera zuzendu ziren. Bere portarakerak etsaiaren aldekoak ziren askotan eta horrek bere ordaina behar zuen izan. Baina toki

hura birritan arakatua izan zen inor bertan aurkitu gabe. Hala adierazten zuten, bertan egon ziren aurreko kideek utzitako informeeetan. Hala ere, nahiko izan zen inguru hartan hogeita lau ordutako zaintza egitea, bertaratu zen umearekin hitz bi egiteko.

- Hemen norbait dago! Iriki atea! Umeak aitortutakoa zuzena da...
- Atera hortik urde gorri zikina!
- Nola ez du ba egia esango umeak. Ama lepotik genuela ez zuen beste erremediorik...
- Horrek ez zekiena zen, amak ordurako ordainduak zituela komunista zikin bat laguntzeagatikoak...
- Isildu ta bota ate hori...

Zakurrak zaunka jarraitzen zuen erabat amorraturik. Halako batean bi tiro hots entzun ziren. Eskaileran gorako pausu azkarrak entzuten ziren. Ez zen txakurraren zaunkarik entzun. Ezta ulurik ere. Beste tiro hots bat entzun zen jarraian. Matiasek bidegurutzera iritsita etorkizunerako bidea aukeratu zuen, beste inork norabidea inposatu aurretik.

# Finlandia

Finlandiako hiri batean, 43 urteko gizon bat jattetxe batean sartu zen lagun batekin bazkaltzeko asmoz. Sartu bezain laster, bertan bazkaltzen ari zen emakume bati erreparatu zion. Munduko emakumerik ederrena zela iruditu zitzaion. Lagunak neskarengana hurbildu eta zer edo zer esatera animatzen zuen baina gizona, lotsatia zenez, ez zen ausartzen. Azkenean, altxatu eta emakumea eserita zegoen mahaira abiatu zen. Zoritarrez, zegoeneko, emakumea joana zen eta mahai horretan jubilatatu batzuk zeuden.

Ezin zuen emakume haren irudia burutik kendu. Horregatik, hiriko egunkari irakurrietan iragarki bat jartzea erabaki zuen, emakumea aurkitzeko.

Honela zioen iragarkiak:

## MUNDUKO EMAKUMERIK EDERRENA AURKITU DUT BAINA EZ DAKIT NOR DEN

Pasa den igandean, hilak 16, Fiordo jattetxean, munduko emakumerik ederrena ikusi nuen. Zerbait esatera ausartu nintzenerako, bera joana zen. Baina, aurkitu nahi dut. Aurkitu nahi zaitut: nik zu ezagutzeko eta zuk ni ezagut nazazun. Beste emakume ilegorri batekin zeunden. Mesedez, etorri hilaren 30ean, arratsaldeko seietan, Norvegia tabernara. Zu ezagutu besterik ez dut nahi. Zure zain egongo naiz.

**Matti**

Seiak laurden gutxi dira. Matti Norvegia tabernan dago. Hain urduri ez egoteko etxetik atera baino lehen hiru tila edan dituenek, lasai dago. Hala ere, sabelean hartxo bat nabaritzen du, hartxo edo herensuge bat... Ez daki jattetxe hartan ikusi zuen emakumea etorriko den ala ez, laster

jakingo du, baina etorriko den susmoa dauka... Zein ederra iruditu zitzaion! Irribarre atsegina zeukan, hortzak zuriak eta ondo zainduta. Ilea beltza, luzea, kizkurra. Eserita bazegoen ere, ematen zuen emakume altua eta liraina zela. Titiak ez handiegiak, ez txikiegiak.... Hara! Badator! Bera da!....


- Kaixo, Matti naiz.
- Kaixo, ni Helena.
- Zer hartuko duzu? Kafetxo bat, agian?
- Bai, kafesnea, mesedez.
- Oraintxe ekarriko dizut.

*Hau da Matti, orduan. Ez dago txarto! Itxura ona dauka, bizarra ondo kenduta, sendoa. Badu ilerik oraindik, urteak baditu ere. Txukun jantzi da. Um, zapata politak. Badator, oso garaia da....*

- Hemen duzu.
- Eskerrik asko.
- Beno, suposatzen dut harritu samar egongo zarelara, ezta?
- Bai, inoiz ez zait horrelakorik gertatu.
- Nik ere ez dut inoiz horrelakorik egin, ez pentsa, egunkarietan iragarki bat jartzea... Baina, hain handia zen zu ezagutzeko gogoia!
- Zergatik, ba? Ni 40 urteko emakume arrunta naiz.
- Arrunta diozu? Niri ez zitzaidan horrela iruditu. Jattetxea jendez beteta zegoen, emakume asko zeuden, baina zuk erakarri zenuen nire arreta. Emakume asko ikusten ditut egunero kalean, lanean, tabernetan, dendetan... Eta ez dut inoiz zu bezalako emakume ederrik aurkitu.
- Eskerrik asko.
- Uste dut munduko emakumerik ederrena zarelara. Ez naiz inoiz ezkondu, agian zure zain nengoelako... Badakit ez nauzula ezagutzen eta pentsa ahal duzula zoratuta nagoela. Baina hori horrela ez dela ikus dezazun ni ezagutzea nahi dut. Elkarrekin atera gaitzen nahi dut.

Horrela ikusiko duzu gizon zintzoa naizela, serioa, langilea, leiala. Ez zaizkit gezurak gustatzen, ezta txikienak ere. Aurrezki batzuk ditut, ondo bizi izango zara nirekin, ez duzu lan egin behar izango, etxeko erregina izango zara.

- Beno, ni...
- Ez, ez esan ezer. Zurekin maitemindu nintzen ikusi bezain laster. Une horretan jakin nuen beti bilatu izan dudan emakumea zarela. Pertsona jatorra eta serioa dirudizu. Aurpegi eder horrek ezin du gezurrik esan. Hain ederra zara! Ama Birjina dirudizu!...
- Ama Birjina ni? Uste dut oker zaudela...
- Ez, ez, ez. Nik oso begi ona daukat. Emakume batzuk ezagutu ditut. Beraiekin pare bat aldiz atera eta berehala konturatzen naiz txoriburu hutsak direla, dirua besterik ez dutela nahi. Baina zu ez zara horrelakoa. Zu benetako emakumea zara. Errespetu osoa merezi duzu.
- Baina, zuk emazte bat nahi duzu.
- Bai, hala da eta badakit zu emazte zintzoa eta leiala izango zarela eta maite izango nauzula, horretarako aukera baldin badugu.
- Baina, nik...
- Bai, badakit emakumeoi gizon serioak, onak eta zintzoak gustatzen zaizkizuela eta ni horrelakoa naiz. Benetan diotsut.
- Bai, hala ematen duzu baina nik ez dut zure emaztea izan nahi....
- Nola ezetz? Emakume guztiok ezkondu nahi duzue eta etxeko erregina bihurtu. Eta nirekin lortuko duzu. Ikusiko duzu. Nahi duzun guztia emango dizut.
- Baina, nik ez dut hori nahi...
- Ez? Orduan, zer nahi duzu? Esan eta ahalegin guztiak egingo ditut zuri emateko...
- Hamabost urte daramat ezkondata zu bezalako gizon on batekin. Etxeko erregina naiz eta nahi dudan guztia ematen dit, gauzatxo bat izan ezik...
- Esan, bada, neuk emango dizut...
- Sexua! Horra zer nahi dudan!. Oso gizon aspergarria da alde horretatik. Ez da inoiz gizon sutsua izan, ezta ezkondu berritan ere.



Eta ni oso emakume sutsua naiz. Barruan daukadan sua itzali nahi dut. Baina, ez dut lortzen. Amorante batzuk izan ditut. Alferrik, ordea. Haiek ere aspertu naute. Ez dute jakin behar nuena ematen. Berrogei urte ditut eta izan ditudan orgasmoak esku bateko atzamarrekin kontatu ahal ditut. Itxuraren aldetik ondo nago baina, laster, naturak ez nau errespetatuko eta bere arauak ezarriko dizkit. Une hori heldu baino lehen, disfrutatu nahi dut, sua itzali nahi dut... Hori emango didazu?

*Maku Noriega*

# 2Dak



**Delako 1-** Ze kristo egiten dut hemen?

**Delako 2-** Ze demontre egiten dut...  
Eih! Zu zein zara?

**D1-** Ni zein naizen? Eta zu? Ze leku klase da hau? Non gaude?

**D2-** Ideiarik ez. Leku ilun honetan esnatu naiz; ez dakit zergatik, nola...

**D1-** Joe! Niri berdina pasa zait.

**D 2-** Agian txantxa bat da; gustu txarrekoa, hori bai. Ez zara zu camara indiscreta horietako aktore bat izango, ezta?

**D1-** Justu! Bete-beteen asmatu duzu. Ez zitzaidan denbora pasatzeko ezer bururatzen...eta zuri txantxa bat egitea otu zait. Ez didazu aurpegian igartzen primeran pasatzen ari naitela? Hemen, leku ezezagun batean, ilunpetan, hotzez eta...zure konpianian! Psss.....

**D2-** Bale, bale...argi geratu zait ez zarelako oso txantxa zalea. Eta orduan ze azalpen ematen diozu?

**D1-** Eta nik zer dakit! Baina ez dit inongo graziarik egiten.

**D 2-** Eta hango argi horiek?

**D 1-** Konturatu naiz bai. Ez dakit zer diren. Bi ate direla iruditu zait, bakoitzak bide desberdin batera dararamala.

**D2-** Aukeratu beharko dugu orduan.

**D1-** Hori edo zurekin hemen hil. Bai, us-te dut aukeratu beharko dugula.

**D2-** Hau umorea....

**D1-** Han urrutitik ez nuen ikusten, baina bakoitzak kartel bat du gainean, izen batekin.

**D2-** Nire ondoan dagoen ate hau kartratua da, perfektua. Barrura begiratuta txuri ikusten da dena, harmoniatu. Soinu lasaigarriak irte-

ten dira bertatik, txorien kantuak eta uraren joan-etorriak. Kartelean Bizi-Pista jartzen du.

**D1-** Beste honek forma arraro xamarra du, irregularra. Barrualdetik kolore desberdinetako argiak ateratzen dira, batzuk oso alaiak, beste batzuk, aldiz, tristura transmititzen dutenak. Danborren soinu alaiak garrasi bortitzeekin nahasten dira, algarak negarrekin. Kartelean Bizi-zidorra jartzen du.

**D2-** Eta...zein aukeratuko dugu?

**D1-** Ez didazu sinetsiko, baina hilabeteak daramatzat erabaki honen aurrean, parez pare. Eta ez naiz aukeratzeko gai izan. Bizitza malkartsua izan dut: gazte-gaztetatik izan naiz abenturazalea, finkatutako araukin hausteko beharra sentitu izan dut beti, barren-barrenetik. Bidaia asko egin ditut nire bizitzan zehar, eta gauza asko ikusi ditut: sarritan esperientzia politak, beste hainbatetan berriro errepikatu nahi ez izatekoak. Sexua, barreak, laguntasuna, ezagutza berriak; drogamenpekotasuna, langabezia, gosea. Koktel arriskutsua. Bizitza gazi-goza. Oinarririk aldatzeko erabakia hartu nuen duela hilabete batzuk, eta espero ez nuen zerbaitetaz konturatu naiz: ez naiz gai nire izaerari aurre egiteko. Eta orain, esku bat luzatu dit norbaitek edo zerbaitek. Ate egokia aukeratzen badut, Bizipistarena, nire bizitza perfektua izango da, buruhausterik gabekoa, denek espero dutena izango naiz. Baina ez naiz ate hori aukeratzera ausartzen.

**D2-** Geldi, geld! Gauzak ez dira zuk esaten duzun bezalakoak. Ni mundu "perfektu" horretatik nator. Hau-

rra nintzenetik beti izan naiz guraso guztiek desio duten semea: formala eta ikasle ona. Inoiz ez dut lagun gehiegirik izan, baina horrek ez zien ardura nire gurasoei, etxera nota onak eramaten nituen bitartean dena ondo zihoan. Eta oso nota onak eramaten nituen. Unibertsitatean neska bat ezagutu zuen, familia erlijioso dirudun bateko alaba. Denak perfektua zirudien, neska oso aspergarria zela kontutan hartzen ez badugu, eta ezkondu arte sexu harremanik izan ez nuela ahazten badugu. Eta ezkondu ginen, nola ez, berehala ezkondu gainera. Ingeniari lanetan hasi nintzen eta denbora gutxian garrantzizko postu bat eskuratu nuen. Zuzendariaren begikoa naiz. Lau seme-alaba ditut, guztiak amaren irudira egindakoak, nire kalbarioa areagotzeko apropos jaiotakoak. Beti nahi izan dut zure moduko bizitza izan. Eta orain, esku bat luzatu dit norbaitek edo zerbaitek. Ate egokia aukeratzen badut, Bizi-zidorrarena, nire bizitza inperfektua izango da, gora beheraz beteta, beti egin nahi izan ditudan gauzez disfrutatu ahal izango dut. Baina ez naiz ate hori aukeratzera ausartzen.

**D1-** Beti pentsatu izan dut egunen batean bizimoduz aldatuko nuela, nire ezinegon honi aurre egingo nioela. Orain aukera paregabea daukat. Kapaz izango naiz? Zoriontsu izango naiz Bizi-pistan?

**D2-** Bakoitzak daraman bizitza eredu norberaren arimaren islada izanez gero, badago hori aldatzerik?

**D1-** Zuk ate hori aukeratzen baduzu eta nik hau? Edo zuk hau eta nik hori?

**D2-** Eta biek hori aukeratzen badugu? Edo biek hau?

**D1-** Nik hau aukeratuko dut. Zuk?

**D2-** Nik hau.

**D1-** Bizi-bidai on!

**D2-** Berdin. Pozik bizi!

*Aitziber Lekuona*





# maite zaitut

- Maite nauzu?
- Bai, maite zaitut.
- Ez, ez esan horrela. Utzi liburua eta begiratu begietara!
- ¿???????????
- Maite nauzu?
- Baina, zer da lelokeria hau? Zertara dator?
- Ikusten? Ez nauzu maite. Ez zara hori esateko kapaz, niri begira.
- Ez dizut esan behar. Badakizu horrela dela.
- Nik ez dakit ezer, zuek esaten ez badidazu...
- Hitzek ez dute garrantzirik. Ekintzek, ordea, bai.
- Eta horrekin zer esan nahi duzu?
- Uste dut, egunero, egiten dudanarekin nire sentimenduak adierazten dizkizudala...
- Ah bai? Egun osoa ematen duzu lanean. Afaltzera etortzen zara eta, batzuetan, ezta horretara ere, bakarrik lo egitera.
- Badakizu bolada txarra pasatzen ari garela lanean...
- Bai, badakit, baina orduan ez esan ekintzekin frogatzen duzula maite nauzula.
- ??????????????????
- Ez nauzu maite, behar nauzu, baina maite ez.
- Hori ez da egia...
- Nirekin bizitzen ohitu zara. Gainera, behar guztiak ase dituzu: janaria prest, arropa lisatuta armairuan, etxea txukun, gauza guztiakin arduratzen den emakume isila...
- Aski dugu, ezta?
- Ez, ez dugu aski. Egun osoa ematen dut etxean, bakarrik, zure zain, zure afaria prestatzen, zure arropa lisatzen, zure gauzekin arduratzen... eta zertarako? Zu etxera heltzeko eta begietara ez begiratzeko.
- Zer nahi duzu nik esatea? Ba, ez, ez zaitut maite. Egia da. Ez nintzen zurekin maitemindu baina eroso zinen: emakume zintzoa, garbia, etxerako oso egokia... Nik bizimodu lasaia nahi nuen eta banekien zurekin izango nuela.....
- ??????????????????????
- Zure lagun txoriburu horrekin, Alaiarekin, maitemindu nintzen. Txora-txora eginda nengoen. Zurekin ateratzen hasi baino lehen zer sentitzen nuen adierazi nion.
- ??????????????????????
- Berak erantzun zidan ez zela inoiz ezkonduko, libre bizi nahi zuela, ez gizon baten esklabo, bere ama bezala.
- ??????????????????????
- Orduan zurekin ateratzea erabaki nuen berarengandik hurbil egoteko.
- ??????????????????????
- Berarentzat gorde izan ditut hitz goxo guztiak, berarentzat izan dira nire maitasunkeinu guztiak, berari eman dizkiot laztan eta besarkada guztiak....
- ??????????????????????
- Hori entzun nahi zenuen? Ba hortxe duzu: ez, ez zaitut maite. Bera maite dut. Betidanik eta betiko.....

# Diogenes txakurra

- Gaur bazkaltzekorik izango al dugu?
- Nik gose ederra daukat, baina, la-sai, ez zaitut bakarrik utziko. Jan gabe gelditu beharko dugu, oraingoan ere.
- Hori da benetako laguna izatea.
- Ez dakit zergatik egiten dudan, egia esan. Aldameneko ate horretatik sartuko banintz, ziur nago bazkari ederra aurkituko nukeela.
- Taberna da, ordea!
- Horregatik esan dut.
- Janaria soberan dago hor, baina ordaintzen dutenentzat.
- Ba, ordaindu egingo dugu.
- Ez eman barregaririk. Ez dauka-gu sosik.
- Norbaitek emango digu.
- Hori pentsatzen genuen atzo ere, eta hemen gaude ezer jan gabe.
- Egia esanda, filosofo koherente izateak ez du ezer onik ekartzen. Hitz egin eta hitz egin, eta urdaila betetzeko lain ez dugu ateratzen. Ezin inor engainatu, zazpi ordu eta gero. Hau da gure saria, egun osoko lanari.
- Ixo motel! Norbere buruarekin ados egotea da saririk onena.
- Ja!
- Eta horrek arima asetzen du.
- Arima izango da, zeren eta gorputza, ez dago horrela asetzerik. Gainera, guk, txakurrok, ez dauka-gu arimarik. Ala?
- Ba, entzun, gorputza ere, gutxi janda argiago egoten da, burua azkarrago.
- Nire burua inoiz baino azkarrago dabil, ba, horregatik. Lapurretan egitera sartuko naiz tabernara, ea zerbait daukaten jateko, mahai gainean utzita.
- Txakurrek ez dute lapurretan egiten.
- Nola ezetz! Nik askotan ikusi ditut.
- Hori da gizakiei begiratzan diete-lako. Gaizki ikasten ari dira.
- Edonola ere, txakurak bagara, jan beharko dugu.
- Baina txakur egin ginen gizakiak gaizto eta maltzurak zirelako. Animalien inozotasunik ez zutelako. Ez gara ba hasiko eurek moduan? Horretarako, gizaki egingo ginateke berriro.
- Bai zera. Ez zenuen ba zuk esaten gizakirik ez zenuela aurkitzen?
- Giza-antzekoak barra-barra dau-de, baina benetako gizakirik ez dut aspaldian ikusi, egia da.
- Eta, txakurrik, ikusi al duzu aspal-dian?
- Zeu, hor, neure aurrean.
- Bai, baina ni, izatez, gizakia naiz.
- Zeuk ez baduzu sinesten, nola nahi duzu besteek onartzea? Ni ez naiz gizakia, Txakur peto-pe-toa baizik. Eta datorren astetik zaunka hasiko naiz gainera.
- Eta, zergatik ari zara neska gazte horri begira? Txakur emeak ez di-tuzu begiratzan.
- Neska ederra benetan!
- Senez begiratu dut, txakurak be-zala. Sabela berotzen hasi zait.
- Periklesen biloba duzu.
- Aitonak zer axola niri. Hilik da hu-  
ra ere.
- Ez zaitetz harengana hurbildu, bestela soldaduak jipoia emango dizute.
- Ez, zakila astintzera noa, txaku-  
rren antzera.
- A, beno. Halere, badut zalantza bat. Txakurak askotan ikusten di-tut euren zakila miatzkatzen. Zuk ahal duzu?
- Uff. Gaztetan egin izan nuen, bai-na orain, jada, zahartu naiz, hau-tsiko nuke hezurren bat. Zer, saia-tu zara, ezta?
- Bi egun pasa dira, eta lepoko mi-  
nez nago.
- Ondo baina. Gozamen itzela da.
- Beste norbaitek egiten badizu ere bai.
- Akabo ba! Ez duzu ba nahiko...?
- Ez lasai, zuk egitea ez, hain zuzen ere. Beste norbaitengan pentsa-tzen ari nintzen. Ejem! Neska guri begira dago. Eta zu...
- Utzidazu momentu bat, esango di-zut.
- Ni ez naiz ohitzen txakur izate ho-netara. Ez zait zakila jende aurre-an ernetzen, ezta eraginda ere.
- Ez duzulako benetan sinesten, Be-gira, begira.
- Ez daukazu oso handia, bestalde.
- Nahikoa da, egin ahal dudanera-ko. Utzi, utzi, Aaaaaaaaaa!
- Azkar isuri duzu.
- Hilabete badirelako kanpairik jo-tzen ez nuela.
- Lehen, ostera, astero joaten zinen putetxera.
- Eta, badakizu? Minerbak, beltza-ran hark, ez zidan inoiz kobratzen.
- Besteek bai, ala?
- Ez nuen beste inorekin egiten, hu-  
ra maite nuen. Eta debalde.
- Bai, ostikoka bota zintuen arte.
- Mozkorturik joan nintzen, eta ez zitzaidan ernatu.
- Txakurrei hori gertatzen al zaie?
- Mozkortzea?
- Ez, ez, txakurrek ez dute ardorik edaten.
- Ez diegulako inoiz eman, bestela,



guk beste.

- Zakila ez igotzea esan nahi nuen.
- Ezagutu nuen zahar bat, alabari sartu nahi, eta, halere, ezin.
- Hori ez dago ondo.
- Txakurrak egiten dute. Koherentzia pixka bat.
- Koherentzia sobera dugu, emakumerik ez, ordea. Ez alabarik, ez emazterik, ez gaztetxorik, ez emagaldurik.
- Eta larrutan egiteko gogoia ere, tamaiñan. Orain janariaz eta edariaz, ia gehiago disfrutatzen dut.
- Jango bagenu, behintzat, ziur nago disfrutatuko genukeela.
- Edan ere, aspaldi ez dut egin.
- Larrutan ere, kanpai joka noiz-behinka, eta kito!
- Edadea da. Ikusi, pixa ere, lehen askoz urrutirago egiten nuen, orain pausu batera, justu-justu, ia oinak ere bustitzeko zorian.
- Besteen oinak, halere.

- Norberarenak baino besteenak zipristintzea hobe, ahal izanez gero.
- Bai, gogoratzen dut, nola egin zenien jauntxo harroputz haiei. Kontatu zidaten.
- Eurak bultzatu ninduten txakur eran jokatzera, hezurak bota zizkidatenean, jateko.
- Harritutik utzi zenituen, ezta?
- Bustita. Bati, tunika melatu nion gerritik behera, eta ardo garesti haren gainean ere egin nuen.
- Pitxarrean asmatu zenuela zioten txutxu-mutxuak.
- Edalontzietan ere bai. Sekulako parrastada.
- Parrastada gero etorriko zen, ez?
- Bizkarreko ederrak eman zizkidaten, zerbitzariak nor nintzen kontatu zien arte.
- Gero, zurekiko jarrera aldatu zuten, orduan.
- Bai, beste asko jaiki ziren, eta, denen artean, ibaira bota ninduten.
- Mina hartuko zenuen.
- Ez gehiegi, badakizu, ohituta nago horrelako egoerei aurre hartzen. Ur gutxi zegoen.
- Begira, han dator Sokrates.
- Goazen hemendik, bestela hurbilduko zaigu, eta kriston txapa botako digu.
- Filosofo handia da.
- Ahozabal alua, bere burua ezin ezagaturik dabilela dio. Platon bere ikasle aberatsaren kontura bizi da. Biak dira munduko gizaki faltuenak.
- Orduan, gizakiak dira?
- Hori uste dute. Niretzako, otsoak dira. Beste guztiak jan egiten dituztenak.
- Horregatik dauka Sokratesek hain arnasats ustela?
- Ez, hori da ardo asko edaten duelako goizetik hasita.

- Egiaren bila ibiltzeak neke handia ekarriko diolako, agian.
- Ez dakit. Egi bila, ala ogi bila dihoan. Biak ziurrenik, bat dira.
- Ogia aurkitzeko arazorik ez du ematen duenik, beste memelo aberats hura alboan izanda. Hark garbitzen dizkio barrenak?
- Ez, itxuraz. Diote euren maitasuna intelektuala dela, ez haragizkoa. Gorputzaren plazerak ez zaizkie gehiegi gustatzen. Nahia go dute pentsatzea.
- Ni ere, emakumeetan pentsatzen ari naiz beti, baina, azkenean, kanpaia joaz bukatzen dut.
- Zu baina, eta ni, pulamentuzko arbaso gabeko txakur soilak gara, haragizkoak osoki, arimarik gabekoak.
- Eta, eurak, arimarik bai?
- Noski, hilezkorra gainera.
- Nirea, ordea, gorputza, gose da. Gizakiak direla ahaztu eta, joango al gara eurengana? Agian, zerbait emango digute jaten, hilezkortasunaren rolloa entzun ondoren.
- Joango gara, baina ez gizakiak direlako, otsoak direlako baizik. Eta, beraz, gure senide.
- Argia zara, Diogenes, argudioak asmatzen.
- Urteetan aritu naiz.
- Senide aberatsek emango digute jaten, orduan?
- Ez dakit. Horiek izaten dira xuhurrenak. Saiatu beharko dugu, barrenak agintzen du.
- Irain asko botatzen ez badizkiezu, haien kontura bazkalduko dugu gaur, Diogenes, kontu izan..
- Eta zuk, gogoratu txakurra zarelara. Hemen datoz.
- Uau, uau.

# Love boat

- Goazen, laztana! Txalupatxo zoragarria da, ezta? Ai (hasperen), zein erromantikoa... Ez da baxterer merkea, baina, zugatik, edozer. Gustatzen?
- Bai
- Bai, ezta? Ekarri duzu bazkaria?
- Aja.
- Egin duzu niri hainbeste gustatzen zaidan patata tortila?
- Bai.
- Eta eguzkitarako krema?
- Bai, bai.
- Eta urperako tresnak? Buzoa, igel-hankak, betaurrekoak, tutua...
- Baaai.
- Dena?
- Baietz ba!
- Orduan askatu soka eta goazen laztana! (soka askatzen du, eta txalupa bultzatu) -ale, aske.
- Baina, laztana, zertan ari zara?
- Askatzen, zugandik. Bukatu da denari baietz esate hori. Bidaia erromantikoa izan, zure buruarekin, zu, zu, zu eta zu. Ai, egia! Ez dakizula arraunean! Ni gabe ez dakizu nabigatzen, ezta? Ba ikasi!!!

*Ekaitz Goienetxea*

**JOKIN MUÑOZ:**

“Istorio on batek,  
liburua bukatuta ere,  
bere bidea egiten du”



Jokin Muñoz, 1963an Castejonen (Nafarroa) jaio zen donostiarra. Egun Etxaurin bizi eta Barañainen egiten du lan irakasle moduan. Alberdanean argitaratu ditu bere orain arteko lanak: *Hausturak* (1995), *Joan zaretenean* (1997), *Atlantidara biajia* (2000), *Bizia lo* (2003) eta *Antzararen bidea* (2007). Azken biek Euskadi Literatura Saria jaso dute, eta euskal letren unibertsoan ezagun bihurtzera eramán. Lau seme alaben aita izateak idazteko denbora gehiegi uzten ez badio ere, sortzen jarraitzeko uneak topatuko dituelakoan gaude. Idazle Eskolakooi ere eskaini digu tarte bat, bere obrari buruz luze eta zabal mintzatzeko.

**Castejonen jaioa. Askori arraroa egingo zaio: Erriberan, euskalduna, eta gainera euskal idazlea.**

Norbera batxilergoa egin duen lekukoa da, eta ni, alde horretatik donostiarra naiz. Ama Castejongoa da. Oso gazte izan zen ama. Sei anai-arreba gara, eta nonbait, lehenengo hirurak erditzeko laguntza behar zuela sentitu zuen. Bere aita, nire aitona, medikua da, eta bere arrimura joan zen. Hiru zaharrenak Castejonen jaio ginen, eta gainontzekoak Gasteizen eta Donostian. Beraz, alde batetik anekdotikoa da. Baina bestetik, udak eta bertan pasatzen genituen. Gainera, Castejongo amona erreferente bat izan da gure familian. Orduan, ez da goitik behera markatu nauen kontua, baina Castejonen jaio izanak markatu du nire literatura ibilbidea. Hegoaldean aurkitu dudalako potentzia literario handiko iturria. Hortaz, Castejonen jaioa naiz baina ez naiz bertakoa. Donostiarra kontsideratzen naiz.

**Irakurle euskaldunengana, *Bizia Lo* liburuarekin iritsi zinen. Alde horretatik, Euskadi Saria bultzada handia izan al zen?**

Euskadi Sariak konpromisoan jartzen zaitu neurri batean. Zailagoa izaten da mailari eustea mailara iristea baino. Ilusio handia ematen dizu noski, batera eta bestera ibili beharra ere bai, edozein sari jaso ostean bezala. Baina bai nabaritu nuela, behin *Bizia lo* plazaratu eta gero, hurrengo lanak ezin zuela edonolakoa izan, irakurleei tamaina bereko erantzuna eman behar diezulako. Euskadi Sariak erretiratu beharra, gauzak ondo pentsatu beharra, eta istorio bat ondo egituratu beharra ekarri zidan. Zeren, horrelako sari bat jasotzen denean, idazleak pentsatu behar du momentu horretatik aurrera, bere literaturak maila bat eduki behar duela. Izenarekin ibiltzeak ez duela balio. Izenaren ondoan, gutxienez saria jaso duen obraren tamainako lan bat aurkeztu behar duela. Presio gradu horrekin, zerbait lortu baitaiteke, eta horra jo beharko genuke idazleok.



**Hausturak, Joan zaretenean, *Atlantidara biajia...* Lehen liburu haiek zer nolako oihartzuna izan zuten?**

Gure literaturaren errepublika txiki honetan, lehenengo planteamendua izan behar da, “nik idatzi egin nahi dut” eta ez “nik idazle izan nahi dut”. Ni gogoratzen naiz, banituela istorio batzuk buruan, eta ez argitaratzeko arriskua izan arren, idatzi egin nituela: “lan guzti hau egin eta gero, agian ez didate argitaratuko”. Alferrikako lana izan zitekeen, baina gustuko jarduna baduzu, gustura egiten duzu. Alberdaniara lehenengo liburua bidali nuen, *Hausturak*, konturatu nintzen, Alberdaniak sekulako apustua egin zuela. Inork ezagutzen ez duen idazle baten 300 orrialdeko liburua publikatzea... Baina askotan pentsatu dut, lehenengo liburu hori argitaratu ez balitz ere idazten jarraituko nuela, nire egoera pertsonalak hori ahalbidetzen zidalako. Kontua da, *Hausturak* publikatu egin zidatela, eta publikatze hutsa, ia badela nahikoa akuilu idazten jarraitzeko. Behin publikatuz gero, beste guztiak badatoz, animatu egiten zara. Horrela, Joan zaretenean etorri zen. Gero, liburu nahiko ganberro bat iritsi zen: *Atlantidara biajia*. Ez dut uste ondo ulertu zenik liburu hau. Umorezko klabeak maneiatu nahi nituen, baina jendeak beste era batera hartu zuen. Euskal Herri mailako ezagupenik ez zidan eman, baina marka bat jarri zidan gainean, esanaz, “hau bazterrak nahastera dator”. Honen ostean, *Antzararen bidearekin* hasi nintzen, eta orduan agertu zitzaizkidan *Bizia lo* liburuak istorioak. *Antzararen bidea* bazterrean utzi, eta *Bizia lo* idazteari ekin nion beraz. Euskadi Saria eman zidaten gero. Gainera, hautagaien artean *Soinujolearen semea* liburua zegoen, eta nire liburuari eman ziotela esan zidatenean, ba ezeroso sentitu nintzen. Benetan gaizki pasa nuen.

**Hausturak** liburu hura irakurtzen buka-  
tu baino lehen deitu omen zizun Alber-  
daniako editoreak zure lana publikatu-  
ko zutela esateko...

Bai. Edozein idazle neofitok egingo luke-  
en bezala, argitaletxe guztietara bidali  
nuen lana. Kontua da, idazle neofito hor-  
ren aldeko apustua egin zuena Alberda-  
nia izan zela, eta hori beti eskertu nahi  
izan diet.

**Zein osagai behar ditu istorio batek ona  
izateko?**

Nobela batek, istorio interesgarri bat izan  
behar du. Liburu batek, hasieratik harra-  
patu behar du irakurlea, lehenengo orrial-  
detik. Boxeolari onek bezala, lehenengo  
kapituluak KO utzi behar du irakurlea,  
eta gero tentsioari eutsi. Gainera, istorio-  
ari dilema moral bat gehitu behar zaio, gi-  
za emozio eta pasioekin lotura duena: go-  
rrotoa, maitasuna, pasioa, inbidia... Giza  
sentimenduak sartu, eta pertsonaiak mu-  
turreko egoeretara eramane behar dira.

Gehiago ulertzen dut nobelagintza emo-  
ziotik intelektotik baino. Nire liburuak  
inoiz gogoratzen badira, emozioaren al-  
detik gogoratuko dira intelektuaren alde-  
tik baino. Joan Marsé nobelagileak esaten  
du, nobela txarrek urdaila sano-sano uz-  
ten dizutela, baina nobela onek lona gai-  
nean botata uzten zaituztela. Liburu ba-  
tek beti utzi behar dizu horrelako zerbait.  
Literatura arina deitzen diogunak, libu-  
rua bukatu eta ahaztu egiten direnak di-  
ra. Istorio on batek, liburu bukatuta ere,  
bere bidea egiten du, zurekin eramaten  
baituzu.

**Zure liburuetan gai berdintsuak jorratu  
dituzu: kokalekua Erribera izaten da as-  
kotan, eta gatazkak sortzen du istorioa-  
ren mamia. Obsesioak al dira hauek?**

Istorio luze bat idazteko, idazleak nola  
baiteko obsesioa behar du istorio horre-  
kin. Idazle batek, gustuko izaten du kon-  
tatu behar duen hori ezagutzea. Guk, zo-

ritzarrez, ondo ezagutzen dugu hemen  
gertatzen ari dena, Madrilen bizi den ba-  
tek baino hobeto. Nik gainera, ez dut  
euskal gatazkaz idazten, euskal gataz-  
kan baizik.

*Hausturak* liburu alboko batean geratzen  
da. Ondorengo liburuak izan ziren bere-  
ziki euskal gatazka ukitu zutenak. Hasie-  
ran, dexente sufritzen nuen kontu hone-  
kin. Baina gertatu zait, gizarte honetan  
jende askori gertatu zaiona. Nekea, naz-  
ka sentitu dut. Bizia lo liburutik *Antzara-  
ren bidea* obrara egindako saltoak horre-  
tan datza. Hau da, Bizia Lo-k oso ikuspe-  
gi dramatikoak dauka. Nik ezin nuen Bi-  
zia Lo II idatzi. Hemen umorearentzako  
lekurik ez dago. *Antzararen bidean*, aldiz,  
beste osagai bat sartu dut, nire egoera per-  
tsonala nahiko ondo definitzen duena:  
umorea. Pertsonaia bat sartu dut: Gigi. Gi-  
gi eroa, Gigi ergela, Gigi aho beroa eta Gi-  
gi xamurra batzuen ustez. Askotan gau-  
za gehiegi esaten zituen Gigik, eta zenbai-  
tetan ahoa itxi behar izan diogu. Guzti ho-  
nekin esan nahi izan dudana da, euskal  
gatazka liburu guztietan ukitu dudala,  
baina azken honetan distantziamendu bat  
ikusten dela, ironia bat. Honek erakusten  
du nire oraingo egoera euskal gatazka ho-  
rrekiko, eta neurri batean, baita gizarte-  
ren jarrera ere.

**Soilik materia literario bezala axola omen  
zaizu euskal gatazka...**

Horrela esanda, ematen du, eta bada, oso  
jarrera eroso. Besteen sufrimendua era-  
biltzen duzula zure gauzetarako. Neurri  
batean, idazle naizen aldetik ingurura be-  
gira nago. Ez dut esan nahi nire literatu-  
ra errealista denik, baina gustatzen zait  
inguruko errealitatetik edatea. Gatazka,  
gehiago interesatzen zait planteamendu  
literario gisa. Interes gehiago dut idazle  
bezala hiritar bezala baino. Konponbide  
zaila duela iruditzen zait, eta gainera, lu-  
zerako izango dela. Horrek atzera eragi-  
ten dit. Atxaga, *Zazpi etxe Frantzian* bere  
nobela berri Kongoraino joan da. Nik  
ere badut tentazio hori hurrengo proiektu  
literarioari begira. Bai denboran eta bai



espazioan distantziamendu handia hartzea. Baina, euskal idazleak gara, eta euskal idazle izateak, nahi eta nahi ez, bada- kar zerbait. Markatu egiten gaitu, eragin egiten gaitu.

**Azken liburuarekin jasotako kritika onen ostean, gai bera presente egongo da aurrerantzean? Alde horretatik, *Antzararen bidea* ziklo baten itxiera izan liteke?**

Gatazkaren gaia orain arte agertu den intentsitatearekin ez da agertuko. Aurrerantzean, ez da gai zentrala izango. Hori ziklo bat ixtea bada, esan dezagun ziklo bat itxi dela.

Honekin lotuta, duela gutxi irakurri dudana nobela enigmatiko bat aipatu nahiko nuke: Juanjo Olasagarreren T izenekoa. Tragediaren "T"-a da. Liburu honetan euskal gatazka agertzen da, baina ez mami bezala, abiapuntu bezala baizik. Nobela esperpentikoa da, surrealista dela ere esango nuke. Nik uste dut, euskal gatazkaren gaia ez dela izango mamia ez eta helburua, baizik eta abiapuntua. Olasagarreren nobela da adibidea.

***Antzararen bidea* beste ziklo bat ere itxi dezake. *Hausturak* liburuaren giroa, *Atlantidara* biajiatik Gigi pertsonaia... Aurreko lanen bilduma ere bada. Nahita egin duzu?**


Egia da hori. Nahi gabeko kontua izan da. Amaitzean konturatu nintzen, *Hausturak* eta *Joan zaretenean* agertzen dela. Gigi berriz, *Atlantidara* biajia idatzi zuen pertsonaia zen. Gero, kabroiak nire izena jarri zuen! Eta noski, *Bizia lo* liburutik ere zertxobait badago. Nahasketa bat da. Eta ikuspegi horretatik begiratuta ere, izan daiteke ziklo baten itxiera.

**Donostia eta Erribera, elkarrengandik urrun al daude?**

Bai. Umea nintzela, udan Donostiatik Erriberara joaten ginenean, salto ikaragarria ikusten nuen, bai paisaian eta baita jendearekin hitz egiten hasten nintzenean ere. Nik sentsazioa daukat, hegoaldera joaten den jendeak ez duela autopistatik ateratzeko joerarik, erribera errealitate ezzaguna dela. Erribera Ipar Euskal Herria bezain gaizki ezagutzen dela uste dut. Horregatik, *Hausturak* liburuan Erriberako giroa ekarri nahi izan nuen literaturara. Baina ez berritzaile izateko asmoarekin. Gogoan nuen han ikusi eta sentitutakoa kontatzeko. Hala ere, Donostia Castejon baino hobeto ezagutzen dut. Hasieratik kendu izan nahi nuen exotismo hori: "Hegoaldeko idazlea!". Karrera literario bat egin nahi baduzu, erabili dezakezu exotismo hori. Baina nik hortik alde egin nahi izan nuen hasieratik.

**Donostia berritua, aldatua agertzen da zure eleberrian, lehengo Donostia maitate zutenen begietatik, ordea. Nostalgikoa al zara?**

Donostia orain dagoen bezala ere gustatzen zait eta ez naiz lehengo Donostiaren nostalgikoa. 15 urte daramatzat Nafarroan bizitzen eta itsasoaren nostalgia badaukat. Nik Donostia turista baten begiekin begiratzen dut. Gozamen ikaragarria hartzen dut Donostian egoten naizenean. Hori bai, *Antzararen bidea* Donostiako paisaiek izugarritzko presentzia dute. Hori ez da kasualitatea. Hiri itogarri bat aurkeztu nahi izan dut, bere zilborrari begira dagoena, inguruan gertatzen ari denarekiko indiferentzia erakusten duena... Nola bait, postal ederretan agertzen den hiria, baina barrutik, giza emozioei dagokienean, ustelduta dagoena erakutsi nahi izan dut, leku jakin batzuetatik gainera. Norberak baditu bere paisaia emotiboak: Kontxa, Uli mendia, Amara, Alde Zaharra... Duela 15 urte atzean utzi nituen paisaiak dira. Idazle batek istorio bat idazten duenean, bere koordinadetatik idazten du.





*Antzararen bidean* agertzen diren paisaiak nahita aukeratutakoak dira.

**Zure lanetan aipatu izan dituzu, euskaldunon gain-zama, gehiegizko traszendentzia... Hainbat gai arinegiak omen gure ikuspunturako. Plazerra, nekearen sari gisa soilik ulertzen omen dugu. Zure liburuetan ordea gai traszendenteak dira nagusi...**

Nik ezingo nuke jasan *Bizia lo* bezalako beste liburu bat idaztea. Umorea sartu beharra nuen, arintasunaren nolabaiteko aldarrikapena egiten nuelako. Gehiegizko zama, sufrimendua, eta kontu hauekin lotura duen anekdota bat kontatu zidaten. Zergatik dira mendizalerik onenak euskaldunak eta poloniarak? Ba European herrialderik katolikoena garelako. Zerua lortu nahi izan dugu sufrimenduaren bidez.

Belaunaldi bat baino gehiagoren pisua daragu: Nire aitaren etxea defendatu behar dut! Liburu batean aipatzen nuen, aitaren etxera katez lotutako txakurrak garelako. Nik arintasuna aldarrikatzen nuen. Aro berri batean sartzen ari gara. Oso traszendenteak izan gara, existentzialismoari garrantzia handia eman izan diogu, eta konturatu gabe, postmodernitatean sartu eta balore berriak barneratu ditugu. Traszendente izatetik mendebaldeko gizartean nagusi den arintasunera pasa gara. Hori nabari da erlijioan, politikan eta literaturan.

**Herria, gizarte kontzientzia, taldea... Barneratuegi dauzkagun kontzeptuak dira? Indibidualismoa gaizki ikusia dago?**

Indibidualismoa, postmodernitatea definitzen duen beste kontzeptu bat da. Taldean mugitzen ohitu gara. Taldea babesa da batzuetan, baina beste zenbaitetan itogarria ere suertatzen da.

Idazleak urrutiratzeko beharra dauka. Nik hori aldarrikatzen dut. Gauzak urrutitik begiratu behar ditu idazleak, eta horretarako, nahi eta nahi ez, bakardadean bizi beharra dago. Nire liburuetan agertzen den

konstantea da ihes egin nahia. Lehen aipatu dut, Arestik zioen aitaren etxea defendatu beharra. Postmodernitateak gure gizartean hain erroturik zeuden kontzeptu horiek alde batera utzi ditu. Gainera, aldarrikapen ere bilakatu da: "Ba nik diot, nik nahi dudana etxea defendatuko dudala, uzteko bakean".

**Zure liburuetako zenbait pertsonaiari erreparatuz (Jesus erreketea, Alvaro ETArren laguntzailea), bizitza kasualitatea dela esango al zenuke?**

Bai. Erabaki bat hartzeko momentuan ez dago garai batean zegoen motibazio ideologiko hori. Kasualitateak pisu handia du. Bizitzak jartzen zaitu lagun talde batean, giro batean, eta horrek markatzen dizu hortik aurrerako bidea. Dela kantu bat, dela esperientzia bat, beste edozein gauza izan daiteke, baina ideologiarekin zerikusirik gutxi duena. Niri, adibidez, lagun batek esan zidan Nafarroako institutuetan irakasle aritzeko oposaketarako zerrendak ireki zirela. Epea egun horretan ixten zen. Hartu paperak, entregatu, handik gutxira azterketa gainditu, postua atera eta Nafarroara joan ginen bizitzera. Eta paperak entregatu izan ez banitu? Bizitza erabakitzea da. Eta horrek badu zerikusia idaztearekin. Idaztea ere erabakitzea baita: zer gertatuko den erabaki.

**Nobelan agertzen diren pertsonaiak zehazterakoan manikeismoa urrundu zara...**

Bai, hala da. Honen harira liburuaren parte bat dator kit gogora. Idatzi nuenean indartsua zela konturatu nintzen: Lisak esaten dio Gigiri ea sinesten duen bere semeak horrelako astakeria bat egin ote zakeen. Gigik, 30 urte bete baino lehen egiten ditugun gauzen arduradun ez garelako, erantzuten dio. Jesusek ere esaten dio Lisari: "egon zaitez seguru, Dionik une hartan eskopeta bat izan balu eskuetan, edozer gauza egiteko gai izango zela". Mo-





“Gure literaturaren errepublika txiki honetan, lehenengo planteamendua izan behar da, “nik idatzi egin nahi dut” eta ez “nik idazle izan nahi dut”.

“Gauzak urrutitik begiratu behar ditu idazleak, eta horretarako, nahi eta nahi ez, bakardadean bizi beharra dago”.

“Pertsona bat ez da hasten bera jaiotzen denean. Nire oroitzapenak bukatzen diren tokian amaitzen da nire memoria historikoa”.

mentu historiko batzuk bizi egin behar dira! Garai haietako gertaerak gaurko ikuspegitik epaitzen direnean... Garai haiek bizi egin behar ziren! Agian, gu geuk ere astakeria latzak egingo genituen. Manikeismo horretara bueltatuz, denok daukagu halako demonio bat barruan, eta muturreko egoera batera iristen bagara, demonio hori atera daiteke.

**Gerra Zibila bizi ez arren entzungo zenituen garai haietako kontuak. Pertsonaiak, anekdotak, benetakoak dirudite....**

Nire memoria pertsonalaren esperientziak dira liburuan agertzen direnak. Nire oroitzapenak XX. mende hasierara arte iristen dira. Nik bibliografia oso gutxi mugitu behar izan dut Gerra Zibileko garaia kontatzeko. Zergatik? Gure amona zenak, kontu bat baino gehiago kontatu zigulako. Bera maistra zen, Madrilen egin zituen ikasketak. Nobelan agertzen den Paula nire amona izan zitekeen.

Pertsona bat ez da hasten bera jaiotzen denean. Nire oroitzapenak bukatzen diren tokian amaitzen da nire memoria historikoa. Alde horretatik, XIX. mendeko nobela bat egin beharko banu, bibliografia asko mugitu beharko nuke, ez litzateke nik bizitakoa izango. Gerra garaia nik bizi izan nuen neurri batean, nire amonak bizi izan zuelako eta gerora transmititu egin zigulako. Dokumentazio lana egin dut, baina ez historiaren ikuspegitik. Atrezzoak azaltzeko biologi/ zoologi baten laguntza behar izan dut. Hori da dokumentazio lan garrantzitsuena.

**Gerra zibila aipatzea memoria historikoa hain zabaldurik dagoen garai honetan... Hau ere kasualitatea izan al da?**

Bai, kasualitatea izan da. Nik istorio bat egin nahi nuen. Istorio erakargarri bat egin eta dilemma moral-etiko bat planteatu. Nola? Giza sentimenduen bidez. Alde horretatik, Gerra Zibila ikaragarria izan zen: maitasuna, gorrotoa, fidelitatea.... Dena nahastu zen. Antzararen bideko bi garaiek, baina batez ere 36ko gerrak, ematen zidan aukera nire planteamendu literarioa aurrera eramateko.

Egia da, gure etxean beti egon dela leihotxo bat Gerra Zibilari begira. Baina inondik inora, plan-

teamendua ez da izan memoria historikoaren aldarrikapen bat egitea. Didaktismoa ere ez dut gustuko. Nik ez dut erakutsi nahi izan zer gertatu zen 1936an Nafarroako Erriberan. Saiatu nintzen memoria historikoa berreskuratzeko aldarrikapenetik desmarkatzen, nahiz eta ez dudan uste lortu dudarik.

**Zeintzuk dira zure idazle kuttunak, edo zuzen eragina izan duten obrak?**

John Steinbeck-en *Las uvas de la ira* aipatu izan dut askotan. Ipuingintzan esaterako, eta zenbaitetan nobelagintzan ere bai, hizkuntzaren potentzialitateagatik, asko erabili dut Rulfo. Gero, gure Rulfo propioa, Mujika Iraolaren *Azukrea belarretan* liburua aipatu nahi dut. Niretzat, liburua ia totemikoa izan zen, ipuingintzarako eredu garria.

Bestalde, ez dut sinesten fragmentazioan: orain ipuin bat, orain poema bat... Orain modan dago hori. Nik mapetan sinesten dut. Nobela bat egiteko planteamendu bat behar duzu, tokiak, pasarteak, atmosfera... ondo definituta behar dituzu. Ondo eraikitako istorioetan sinesten dut. Uste dut, fragmentazioaren izenean iruzur de-xente egin direla.

Ni konturatu naiz, fragmentazio horretatik aldentzeak ematen didala plazerrik handiena. Nobelaren mapa eraikitzeko faseak hain zuzen ere: Eskenatokiak, pertsonaiak, goazen denak mapan kokatzera. Horrek ematen dit plazerra, eta ipuingintzan ez dago horrelakorik. Horregatik ihes egin dut ipuingintzatik nobelagintzara.

**Antzarak lepoa moztuta eduki arren oraindik bere bidea egiten ari da. Erdarazko bertsiorekin zer nolako harrera jaso duzu?**


Ni orain ez naiz zurrunbiloaren erdian bizi. Bizirik dago "la oca" eta bizirik dago antzara ere. Horren lekuko da zuekin nagoela. Abenduan eman zioten Euskadi Saria, eta oraindik bidea egiten ari da. Hori idazle batentzat sekulako poza da. Pozik nago, baina antzarari betirako moztu nahi nioke lepoa eta orduan beste zerbaitekin hasiko nintzateke. Gustura nago, baina ez naiz idazten ari. Zerbait makinatzen ari naiz, baina oraindik enbrioi bat da.



## Harpidetu zaitez eta hurbildu nabarrara!

84 orrialde koloretan!

Animatu,  
oso interesgarria da!



mmm... baina hori oso  
garestia izanen da?!

bai zera, urtean 36€  
besterik ez!

hori besterik ez?  
oraintxe bertan deituko dut!



# bidean

Zein bide luzea  
biologiak konstatatua zuenaz jabetzeko:

Maite dituzula, maite,  
enkajezko kuleroak,  
soinekoak, kapelak buruan,  
ezpainetakoak,  
zure bularren borobiltasuna,  
ispiluan eder izan nahi izan duzula

beti.

Zein bide luzea  
zure buruaren jabe izateko.  
Harro, tente.  
Zein bide luzea  
emakume ahotsez hitz egiten duzula jakiteko.

*Alaitz Vives*



# Ibiltariaren haikuak

Bide zidor  
galdutako kalekume  
dardaraka

Bideetan galdu  
eta bideetara bildu  
arima bakartia

Zubiak zain  
ura noiz etorriko  
basamortura

Ibiltaria preso  
bideak agorturik  
askatusunik ez

Bi txalupa  
elkarren ondoan  
ohartu gabe

Firin faran:  
haizea hostoetan,  
lili bat lo



Kaioek orro:  
olatuen talkan  
isiltasuna

Euri tantak  
itsaso urdinarekin  
amets

Kakalardoa:  
ilargi beteko gau  
zuri eta beltz

ARGAZKIA: Carmen Valois

Haize ufadak  
hostoak barreiatu:  
kalean inor ez

Mendi tontorrak:  
bular harroak  
eguzkiari so

Egidazu kantu,  
galburuen uhinak  
xuxurlatzen

*Carmen Valois*



Joan ziren hiru puntu  
bakoitza bere bidetik...  
Bat geratu zen hemen.  
Bestea hor.  
Hirugarrena han.  
Geldi.  
Bakarrik.  
Aspergarriegi.  
Berriro elkartu ziren pozarren  
inoiz-inola-inon amaituko ez den bidaia abiatzeko...



ARGAZKIA: Ekaitz Goienetxea. "Gazte Bidaiak 06" lehiaketan saritua.

## Ekaitz Goienetxea

# Hutsa pasatzen denean

Haizea bakarrik dabil.  
Gasolindegiko morroiarentzat  
sirena-kantuak dira  
kamioien bozinak.

Asfaltoaren beroan  
zeruaren ispilu baino  
ez da errepidea.  
Elektrizitatearen posteeak  
itzala daramate;  
seinaleak mututu dira;  
bidezuloetan ez da  
arimarik erortzen;  
zeinen urrun geratu den azken autoa ...

Hutsa pasatuta,  
bazterrean geratu da bidea,  
bide-bazterrean gasolindegia  
eta gasolindegian morroia,  
pasatzen ez denari begira.

Haizea bakarrik dabil.  
Morroiak hasperen  
egiten duenean dabil gehien:  
berronituta.



Amaia Artolazabal Amilleta



# Bizitza bertze nonbait dago (nigandik at)

Negarrik gabe, isilik, sortu nintzen.

Olerkaria sortu zen behin,  
baina non eta noiz zehazki?  
Ainara. Udaberriko ainara bakar bat  
udaren iragarle,  
baina non da uda?  
Ainara bakar batek ez dakar udarik,  
eta bitartean masturbatu egiten da  
eta (a)hots arrotz bakar bat sumaturik  
lasterka hasten da  
ihes egiten du habiatik.

Olerkari ooren bizitzan behin,  
amarengandik at jaurtiarazten duten malkoak heldu  
eta lasterka hasten da.  
Lasterka segitzen du Arthur Rimbaudek,  
Xabierrek (Lizardik nahiz Letek) ere bai,  
behin eta berriz  
nahiz eta lepoko batek heldu bortizki bere gogoan  
lasterraldi horretan POESIA idatziz ziztu bizian.

Olerkaria jeloskorra da  
erdi aroko gizona, urteak joan ahala,  
denbora mantsotzen du  
eta orduan hiltzen da olerkaria,  
baina soilik olerkari batek daki  
zein maitagarria den  
poesiaren etxe ispiluztatuaren barnea.

Bitartean ainara bakar batek hegan segituko du  
zeru urdinean.

Eta nik lasterka haren gibeletik,  
behin negarrez hasi bainintzen  
eta jada ezin dut gelditu!

*Ainara Maia*



# Udaminean

Udaminean heldu nauk  
eta zuriz estaliren dituk belardiak.  
Eta fruitu gorritz estaliren dituk arbolak.  
Haizeak eramanen ditik minak  
eta biluztuko nauk.

Enara bakar batek oraindik ere  
uda ekarriko dik!

# Adiskidetasuna

Adiskidetasuna HOR egotea da zuretzat  
edozein delarik ere momentua eta tokia  
garrantzitsuena egotea da.

Adiskidetasuna bihotza zabaltzea da  
alaitasuna eramatea  
mina ulertzea.

Adiskidetasuna bizitzaren uneak elkarbanatzeko  
lagunak edukitzea da  
zoragarria da adiskidetasuna!

Adiskidetasuna ALTXOR bat da  
eta gure indar guztiak jarri behar ditugu babes-  
teko.

Adiskidetasuna bihotzetik emandakoa da  
jasotzerik espero gabe  
adiskidetasuna irribarrearen beroa da  
besteak eskaintzen diguna.

Adiskidetasuna entzuteko denbora hartzea da  
erantzunik bilatu gabe  
errukirik gabe ulertzea.

Adiskidetasuna maitasuna baino gehiago da  
betirako zintzotasun-promesa bat da  
eta ez gaitu zauritzen.



ARGAZKIA: Carmen Valois

*Ainara Maia*

# Jakin izan banu

Hori egingo zenuela jakin izan banu  
beste modu batean jokatuko nuen  
eskua luzatuko nizun eta nirekin etortzeko esan

Horrela zeudela jakin izan banu jarriko nien belarria zure hitzei  
erdizka esandako penak ulertuko nituen  
eta garraztasuna somatuko zure brometan  
etsipena zure begietan

Horretarako gai zinela jakin izan banu  
esango nizun maite zintudala  
eskertuko zure presentzia  
barre egingo nuen zure ateraldiekin  
Eta segundo  
agian minutu batzuk gahiago eskainiko nizkizun

Pantailan zure izena agertutakoan telefonoa hartuko nuen  
zure smsak erantzungo  
eta idazten ez zenidanean neuk idatziko  
erantzuna nahi zuen zemuza botako nizun  
egongo ginela esan nahi zuen eongogea  
muxu bat emango nizun ikusitakoan  
besarkada bat agurtzerakoan

Hori dena jakin izan banu  
dena beste era batera egingo nuen  
alferrik baina  
zergatik ez nuen dena beste era batera egin  
ezer jakin gabe?

ARGAZKIA: Carmen Valois

# Behar zaitut

*Ione Gorostazu*

Komuneko arraskan zure argazkia nire zain  
elurpean zaude irribarrez  
azkena izango zena azkenaurreko beste behin  
beste behin baino ez.  
Eta banoa arrastan, banarama arrastoak berriro  
berriro ere bai.  
Komunaren kanpoan zu nire zain  
jende artean zaude, irribarrez.  
Behar duzu  
    behar zaitut  
    behar zaituztet.

# zorion

Zorion jarri zizuten izena  
izenak izana dakarrelakoan  
horrela zorionaren bidea aurkituko zenuelakoan.

Bizitzak bidegurutzeak dauzka baina  
aukera asko  
nora jo  
nondik jarraitu ez jakin  
eta zu horietan galdu egin zinen.

Bizitzak malkarrak dauzka, zailtasunak  
pausoak txikiak dira batzuetan  
gorputzak astunak  
eta zu aldapetan nekatu egin zinen.

Aldapa guztiak ez doaz gora ordea  
eta askotan azkar, azkarregi  
itsu itsuan  
ero baten moduan  
pentsatu gabe maldan behera jauzi zinen.

Bizitzak bidezidorrak ere badauzka  
txikiak, ezkutuan  
eta ihesean askotan zuk iparra galdu zenuen.

Bizitzak oztopoak ere badauzka  
ezustek  
saminak  
minak eta ezinak  
eta bideko zuloetan estroputz egin zenuen.

Bizitza hara eta hona dabil dantzan  
jira biran  
joan etorrian  
eta bihurtune horietan zu zorabiatu egin zinen.

Doneztebeko errepidea estua da  
bihurgunez betea  
zuhaitzak dauzka alde batean  
zuhaitzak eta harkaitzak bestean  
eta zuk hementxe,  
tiro batez amaitu zenuen zure ibilbidea  
agian hemen ikusiko zenuen, Zorion,  
zorionerako bidea.

*Ione Gorostazu*



ARGAZKIA: Carmen Valois



# Udagoiena, hostoen galera

Utzi hiru, esan zuen haizeak

**Bat**, babesten nauen haserrea,  
minaren oskola,  
begietako lainoak  
lausotzen dit bihotzeko gela.

**Bi**, agertzeko beldurra,  
hosto lizuna,  
nork dantzatuko ote du  
zure lilura?

**Hiru**, ezin ezer utzi,  
utzi, solta, biluzi,  
jare joaten eta laga aidean.

Ez bat, ez bi eta ez hiru,  
esan zuen haizeak,  
neuk galtzen ditut denak

Hiru, bi, bat, gabeziak krak  
Bat, bi, hiru, berria ekar

Eta haizeak bidea zabaldu  
eta zuhaitz biluzi ederra, nabar horia,  
utzi dit opari  
begi bien artean, bihotza ñir-ñir,  
udagoieneko arrats gorrian

*Axun Gereka*

## Aurretik...

BILOBA.- Ba, eztut ulertzen. Arbola normal-normala da ta!  
 AMONA.- Bai...haritza. Baina urte askoan zehar gurtu dugu euskaldunok  
 BILOBA.- Benga ya, amona! Baina zergatik?  
 AMONA.- Gure izatearen lekuko da. Izan ginena eta garena.  
 BILOBA.- Bai, zera! Zer...? Lehen arbola ginen eta orain ere bai?  
 AMONA.- Bueno... zergatik ez? Inork ba al daki non hasi zen dena...?

### AHOTSA BATEK:

Puf! Ez naz ondo akordatzen. Soroan nenbilen aitagaz. Belarrak eiten. Halako batian, burrunba entzun giñuan. Gora beitu eta hara! Hantxe zeuden. Asko, beltzak. "Kazak" ei ziren, horixe esan zoskuen gero. Aitak orduan eskutik heldu zostan. Gogor!

### BESTE AHOTSAK:

Eta aguro aguro abiatu ginen! Baserrian euzen ama eta neba arrebak, amama Joxepa be bai. Aitak esan zotsan amari abiatzeko gugaz Santa Mariako azpira. Berak lagunduko zotzala amamari. Etzan egon berba lar, ezta nekerik be. Lehenbailehen heldu bihar, horixe bakarrik buruan. Arnasa bizi-bizi. Kriston zaratie. Kanpaiak, Eta ikara hezurretaraino.

EKAITZ-Begira!

LEIRE- Zer dira?

EKAITZ- Usoak!!

IÑAKI.- Zera, usoak! Ahateak izango dira!

LEIRE.- Ez ote enarak! Beltz-beltzak dira!

EKAITZ.- Handiegiak dira hoielik!

LEIRE- Dedio! Baina...

IÑAKI- Atera bandera! Astindu!

DOLTZA- Joxeee! Kanpaiak!

EKAITZ- Piztu sirenak!

### (SIRENA HOTSA)

ITZIAR-Bizkor, goazen udaletxera!

KARMELE-Baina zer gertatu da?

LEIRE-Ixo eta segi arin!

ITZIAR-Non dago Amama?

EKAITZ-Ez dakit! Korri!

AMAIA-Baina non dago?

ITZIAR- Ama! Ama!

KARMELE- Aita...!

IÑAKI- Amama!!!

DOLTZA- Segi, Miren! Arin! Ez geratu!

EKAITZ- Ez, hortik ez! Zatoz!

DENOK - EZ!!!!!!

### (ARGIAK ITZALI)

(ISILTASUNA)

(MUSIKA)

## Eta ondoren...

Kea...

gorpu apurtuak.

Odola...

Arbola anputatuak.

Samina...

Bihotz zulatuak.

Isiltasuna...

Bizitza lapurtua.

Norbaitek...

Bizitzari "pause" sakatu zion.

Baina gero denek...

"play" eman, eta bizitza martxan jarri zen berriz ere.





# eta noiz hasi ginen izaten...?

Garenaz jabetzen?  
Izan ginena sentitzen?  
Amaren sabelean? Big band handian?

Zein instante zehatzean bihurtzen da zoriona zoritxar?  
Zein segundotan amaitzen da maitasuna... ?  
Non hasten da gorrotoa?

Saldu ziguten zeruak ona dakarrela;

Zergatik bihurtzen da bat batean zerua infernu?  
Zuria beltz?  
Gozoa, gazi?  
Zoriona, zoritxar?

Zer da ongia?  
Eta gaizkia?

Gaztea zahar bihurtuko da.  
Zimurra, izan denaren lekuko.  
Harrokeria azkenean sosegu.

Minak gaiztotuta bizi zen.  
Gorrotoak jota hilzorian.  
Heriotza zuen lagun.  
Esaten zuen; heriotza ez zela hotza  
Heriotza zela esperantza.  
Eta denak kutsatu zituen.

Eta 72 urteren buruan...  
Joan ziren alde batekoak  
Joan ziren beste aldekoak.  
Heriotzak batu zituen hautsaren hutsean.

Eta azkenean pelikulak utzi zioten zuri beltz izateari  
eta heldu zen kolorea bazter guztietara.

*Itziar Gomez*

## GERNIKA

Zerua urdin dago  
eguzkia dirdiraka  
eta gu plazara atera  
ortzadarra ikusteko.

Zerua urdin dago gaur  
baina koloretako ortzadarrikez guri irri-  
barretsu.

Zerua urdin dago  
igande eguzkitsuhonetan  
negar tanta batekirrist egin dit masailean  
behera,  
baina ez dakitzergatik  
biharamunaren iragarle, agian?

Zerua urdin argizjantzi da gaur  
baina gautuko  
ilunduko du,  
eta biharamunekoeuriak  
seguru etzi  
ortzadarra marraztukoduela  
zeru grisean.

« Hitz batzuk hiztegieta daude, baina  
ez dira ia bilatzen,  
maite ditugu.  
egun batzuk urteetan daude, baina ez di-  
ra ia antzematen,  
oroitzen ditugu. »

*Ainara Maia Uroz*

# Izarrik ez zeruan – goizaldean-

Seinalerik ez  
eguneko ordu algaratsuetan

eta hodei ostetatik  
heriotza bonbarderotan  
- barruetaraino-

gero izarrak  
iluntasun ilunenean

gero izar urdina  
bihotzak ferekatu guran

gero ipar izarra  
malko artera - gero –

zerura begiratzeak  
izutzen gintuenean

isiltasun ilunena  
heriotz-minez zauritutako Gernikan

iluntasun isilena  
izarrez betetako - zeruetan –

*Karmele Izartua Bengoa*



## BAKARRIK EZ ZAUDE

Ekaitzak bete betean harrapatzen zaituenean  
altxa burua inoiz baino tenteago  
ez izan beldurrik iluntasunari

eztialdian  
zerua kolorez betetzen delako  
hegatxabalaren zilar kantu goxoa  
entzun daitekeelako,

haize bolada gogorak aurpegia ferekatzen dizunean  
egon zutik, inoiz baino sendoago  
ez izan masailekoen beldar

isiltasunean  
lurra baretasunaren jabe egiten delako  
haurren oihu eta algara ozenak  
entzun daitezkeelako.

Dantzatu ezazu, haizearen baitan  
uretaratu zaitetz, euriaren baitan.

Ametsak egia bihurtu nahiko zenituzke  
abiatu zaitetz, zoaz.

Bihotza itxaropenez aseta  
inoranzko bidean ez duzu bakardadea lagun izango  
bakardadea ez duzu inoranzko bidean lagun izango.

*Dolza Barandiaran Munduate*



## Zaldi pikassianoa

Zaldi pikassiano lepo luzearen hortz deformatu zorrotza,  
garrasika,  
merkatu plazan, erdi-jausitako horma grisean kateaturik ikusi nuen,  
eztanda mordoak,  
suzko erroberen antzera,  
begiak itsutzen zizkidala irudikatzen nuela,  
begi-globoa apurtu osteko betirako itsutasuna sentitu baino lehen.

Zaldi pikassiano mutur handiaren zulo beltz borobildua,  
garrasika,  
germaniar boteretsuen polbora zapaltzailean zikindurik usaintzen nuen,  
leherketa multzoak,  
lurrin ustelen antzera,  
usaimena estaltzen zidala hautematen nuela,  
sudurtzuloa zartatu ondorengo usaingabetasuna sentitu baino lehen.

Zaldi pikassiano begi borobilak duen izuaren tentsio larriak,  
garrasika,  
izara zuri odolduetan bilduta jarri zituzten esku eta oin herrikoiek,  
biharamunean,  
puzzle gorrilunen antzera,  
nazionalkatolizismoaren mixeria hutsala azalarazten zuela,  
errepresioegile erreprimitu barregarriak jaun ta jabe sentitu baino lehen.

Nork, deabru nazkagarrienak (izan) ezik, jaurti dezake sua herritarren gainean?  
Nork, jendilaje maltzurrenak ezik, birrindu dezake herri oso bat?  
Nork, gizatxar zitalenak ezik, bete dezake euskal zerua, edozein zeru, burdinazko obus hiltzaile astunekin?  
Nork, barregabe animalienak ezik, tiroka ditzake ume eta abereak, ametrailadore tarratatsu zaratatsuekin?

Ulertezinak egiten zaizkigun jokaerak ahaztu nahi izaten ditugu.  
giza joera da,  
eramangaiztasunak sortzen duen joera ulergarria.  
Baina zaldi pikassianoaren eztarriaren orroa hain beldurgarria izanik,  
ordea, ez dugu ahazteko eskubiderik.  
Ez dugu ahaztuko.  
Ez dugu ahaztuko hori egin zutenak inoiz ez zirela epaituak izan.

*Iñaki Odriozola*





Euskal Herriko  
Kultur Gehigarria

# mugalari

GARA egunkarian ostiralero

# ONLINE IKASTAROAK



## Hizkuntza Plangintza Graduondokoa

- Soziolinguistikako goi mailako formakuntza.
- Irakasleria: normalkuntza teknikariak, EHUko irakasleak.
- Hizkuntza normalkuntza alorrean lan egiteko ezinbestekoa.
- Titulua: EHUko Berezko Titulua.

## Lan munduko Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, EMUN, ELHUYAR eta ARTEZ-ekin elkarlanean sortua.
- Euskararen erabilera erakundeetan, enpresetan edota elkarteetan sustatzeko oinarrizko ikastaroa.
- Aurrez aurreko saioekin osatua.

## Eusko Ikasgaietan Graduondokoa

- Helburua: Euskal kulturaren adituak prestatzea.
- Irakasleria: nazioartekoa eta gaian aditua.
- Euskal kultur errealitatearen ikuskera emango da, hala egungoa nola historikoa.
- Titulua: UNED eta EHUko Unibertsitate arteko Titulua.

## Idazle Eskola Graduondokoa

- Idazketa literarioa eta idazketa profesionala.
- Irakasleria: egungo idazle entzutetsuenak.
- Idazlea eta obra aurrez aurre jartzen dituzten mintegiekin osatua.

## GNU/Linux - Software librea

- Gaiak: sistemaren eta sarearen administrazioa, sistema ziurra izateko beharrezko hobekuntzak, Web guneak eta bestelako teknologiak.
- Irakasleria: gaian adituak diren unibertsitate irakasleak.
- Software librearen inguruan aritzen direnei zuzendua, ezagutza eta praktika sakentzeko asmoz.

## Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra

- Helburua: berdintasun agenteak sortzea.
- Titulua: 60 ECTS kreditutako EHUk igorritako titulua.
- Ikasleria: Titulazio akademiko ezberdinetatik datozen lizentziatu eta diplomatuak.

# GORROTOA LEGE

ETXAIDE, Yon. Elkarlanean, Donostia, 1998.


XV. mendeko Euskal Herrira eraman gintuen Yon Etxaidek *Gorrotoa Lege* eleberrian barna.

Liburuan, garaiko ahaide nagusiak pertsonai bilakatu dira, izenburuak iragartzen duen gorroto giroko gatazketan. Bizkaiko Butroekoen leinua, Aramaioko Baraxuen edo Uribarriko jaunak—Oñaztarrak-, Arabako Abendaño edo Gipuzkoako Olasokoen—Ganboatarrak-, Oñatiko Gebarako jauna eta guztien arteko gorabeherak eta liskarrak ekarri dizkigu jakin-minera. 1448. urteko San Juan bezperan, ganboatarrek setiatutako Arrasate erre zuteneko nondik norakoak konstatu dizkigu eta hainbeste erailketa, itun eta maitasun harreman.

Historian oinarritutako istorio erakargarria eskaini zigun Etxaidek, gure aurrekoak eta haien bizimodu, ohitura, sinesmen edo jokabideak ezagutzeko aukerarekin batera.

Eta historian oinarritutakoa dela esateko egileak oharretara ekarri zuen bibliografia anitza baldin bada lekuko fidagarri, kontakizun historikoa ez eta eleberria dela ziurtatzeko, hori frogatzen duten, eleberriak bereak dituen, ezaugarri guztiak aurki ditzakegu liburuan zehar: narratzailearen egitekoa edo pertsonaien eraiketa eta beraien arteko elkarriketa esate baterako; pertsonai, toki edo ohituren inguruan egiten dituen deskribapen literarioak; edo poesia gogora ekartzen duten narrazioak; eta metafora nahiz konparazioaren erabilera.

*“Elgoibarko erreka zuloak goizetan darion giro heze eta hozkirriaz babesteko, Jaun Estibarizek kapa gorri ilun bat jantzi zuen eta Domikuk, gazte izan arren, basahuntz larruz egindako jaka eder bat. Baina Areitio-ko lepora heldu zirenean, eguzkiaren beroak gaitziturik, berogarriok arropa otarrean gorde zituzten. Jaun Matxinek aitari berrogeitamar urte inguru jo zizkion eta semeari hogeitsu”* (50. or.)



Hori horrela izanik ere, harrigarria gertatzen da behin baino gehiagotan narratzaileak eleberritik irten eta Yon Etxaidek berak hartzen duenean hitza. Horrelakoetan eleberria baino dokumentu historikoaren itxura handiagoa hartzen du kontakizunak, Axularren erreferentzia egiten duenean bezala, ohar bibliografikoa dirudiena.

*“...Axular euskaldun maisu haundiak honela dio “Gero” bere liburu ospetsuan piztia hezigarri honetaz: “Aztorea, eskuan dadukazunean, higitzen da, iharrosten da, hegaldatzera apoderatzen eta oldartzen da. Ordea, oldartze hok egin eta, lehen zegoen eskura bihurtzen da”...”* (118. or.)

Hizkuntzari dagokionez, berriz, maisuki eta etengabe erabili zuen aditz trinkoak, garaiko lexiko aberatsaren urraketak (ikerketa-lan sakona erakusten duena), gaur egunekoarekin uztartuz lortu zuen egokitasunak, esaldi luze eta egituretan anitzak, edo hitanoaren erabilera perfektuak, Etxaidek hautatu zuen euskara, zalantzarik gabe, maila jasoan kokatzera garamatza. Gainera, liburuak hizkuntzaren bidez mende hartako ohituretara hurbildu gaitu: orduko esaera, kantu, jolas, musika, bertsoak eta emakumea edo mitologia bizitzeko moduetara.

*“Oñetako lur au jabilt ikara,  
Lau aragiok bere, an, berala,  
Martin Bañez Ibarretan il dala.  
Artuko dot esku batean gezia,  
Bestean zuzi irazegia,  
Erreko dot Aramaio guztia”* (375. or.)


(Marti Bañez Artazubikoren alargun gazteak egindako bertsoa senarra hil ziotenean)

Errealitatea fikziora eramaten asmatu zuen Yon Etxaidek eta fikzioa errealitatearen kolorean kontatu zigun. Historia narrazioan. Historia istorio batean.

*Karmele Igartua Bengoa*

# FESTA ALDAMENEKO GELAN

LANDA, Mariasun.  
Erein, Donostia, 2007



Egun guztiak ez dira berdinak. Berdin gertatzen da aste, hilabete, urte eta hamarkadekin ere. Data batzuk nabarmendu egiten ditugu gure bizitzan, gure historian. Eredu pertsonalean bezala, giza-talde moduan ere, gertakizun garrantzitsuak eta datak hautatzen ditugu, Historia eraikitzeko. Horrela iruditzen zaizkigu presentea ulertzeko ezinbestekoak, esaterako: 1789a, 1848a, 1914a, 1917ko urria, 1929a... Eta berrogeita hamar urte bete dituen 68ko maiatza frantsesa.

Parisen izan zen Mariasun Landa 68ko maiatzaren ondorengo udazkenean. Gizarte Laguntzarako ikasketak bukatuta, lau urtez bizi izan zen bertan. Au-pair moduan lan eginez frantsesa ikasi zuen lehenengoan, eta gero, Sorbonako Unibertsitatean Filosofian lizentziatu zen. Bizi-bizi zegoen garai hartan Paris, eta bizi-bizi izan zuen berak ere. Urte haietako lehenengo kontaketa du *Festa aldameneko gelan* "narratio autobiografikoan", 68ko maiatzaren ondorengoan.

Orduko idazki, ohar eta bestelako altxorrak erreku-peratu eta urte garrantzitsu hura berreraiki du, distantzia erlatibotik. Bere bizitzako protagonistatzat aurkezten da, eta 68ko maiatzaren ondorioen testigu bakarrik.

Bidegile beharrez, bide bazterretik poliki-poliki aurrera egiten duen ibiltaria da. Ez dator Historiak 68ko maiatzetik gogoratzen duena ilustratzera, 68ko maiatza bere historian jartzera baizik.

Gloria gutxi, eta orduko Euskal Herriko herri batetik Parisa doan neskatila baten zalantza, konplexu, desio eta ilusio dezente. Gloria gutxi, eta 68ko Parisen kritikatu eta gaingitu nahi ziren balore zaharren arrasto etxe barruetan. Bide berriak irekitzen ari den gizarte baten bazterrean geratzen diren konstantzia. Mobida frantsesetik at, emigrante eta antifrankisten kontuak. Gloria gutxi, eta lekuz kanpo egotearen sentimendua; Euskal Herrian ez egoteagatik, frankismoari eta haren ondorioei aurre egiteko mugimenduak gorpuzten ari zirenean. *Festa aldameneko gelan*.

Norbere historiari eta Historiari begiratzeko modua Mariasun Landa dakarrena, bizitzan kokatzekoa, bizi eta idaztekoa. Nahiz eta festa aldameneko gelan zegoela onartu, ez dabil bere gelako gertakizunak ezkutatu nahian.

Bat-batean, iruzkina bukatutzat ematear nintzenez, Virginia Woolfen *Norbere gela* etorri zait gogora. Baina horrek beste irakurketa bat beharko luke. Jakina da, irakurketa guztiak ere ez dira berdinak.

*Amaia Artolazabal Amillota*



*Hyde Parkeko hizlaria* elaberriak leku eta denbora konkretu batera garamatza; Londres, 70.eko hamarkada.

Hala ere, bertan beste hainbat leku eta hainbat hari batzen dira. Nagusiki 3 ildo narratzaile ditugu. Gazte batzuek egiten duten bidaia du abiapuntu elaberriak. Jotaemek kontaktzen digu honek eta bere kuadrilakoek Londresera egiten duten bidaia. 70. hamarkadako “munduko hiriburu kulturalera” eginiko bidaia iniziatikoa da hortaz, lehenengo ildo narratzailea.

Bigarren ildo narratzailea Edurneren koadernoak ematen digu. Edurne Zabalo Londreseko unibertsitatera horizontaltasuna eta bertikal-tasunaren inguruko tesina egitera joan den neska euskalduna dugu. Honek ere badu gazte garai-ko “abentura” kutsu modukoa. Halaxe jasotzen du bere koadernoak: “*Edurne non sartu haiz?*”.

Edurnek bere koadernoan hartutako anotazioei esker ezagutuko dugu Leo. 3 ildo narratzaile. Bera da Hyde Park-eko hizlaria eta Edurneren koadernoak kontaktzen digunaz gain, Leok ahots propioa du elaberriari; narratzaileak kontaktzen dizkigu Leoren gora-beherak Londresko parkean.

Leo, adineko euskaldun erbesteratua da. Hortaz berari esker Londresen 70. hamarkadako uda horretan hainbat eta hainbat leku eta denbora nahasten zaizkigu. Eta agian horra hor, liburua-aren atarian autoreak ematen digun pistaren ga-koa: Oroimen oro oraina da.

Leoren oroimenak orainaldira datoz kontaktzen diren heinean. Igandero Hyde Parkeko txoko batean maleta zaharraren gainera igo eta ahots

# HYDE PARKEKO HIZLARIA

ITURRALDE, Joxemari.  
Iruñea Pamiela. 2008

ozenez honela zuzentzen zaie beregana hurbiltzen diren entzule guztiei “*Herri txiki batetik natorkizue, Frantzia eta Espainia artean kokatua dagoena, Pirinioen eta itsasoaren artean, Historiak ahaztuta alde batera utzi duena eta, ausaz, baita Jainkoak ere*”. Inglesez eginiko sarrera honen ostean hizlariak euskaraz egiten du bere hizketaldi osoa. Barne ustuketa moduan uler daiteke, bizitza bat kontaktatu nahia, beharra.

Liburuan zehar, Leok ahots propioz hitz egiten du Edurneren koadernoan. Eta hauetan, Leoren bizitzako pasartek oso-osorik kontaktzen dira 1. go pertsonan.

*Leok, ordea, gustura eman dio lehen zurrupada eta horrek indartuta hasi zait bere historia kontatzen:*

*“1934ko urriaren 8an izan zen, oso ondo dut gogoa nire urtebetetzea urriaren 9an delako. Bezperan izan zen beraz”(…) eta jarraitzen du esaten “Bi idazle ziren, biak tolosarrak, bat Antonio Labaien eta bestea Aitzol, apaiza, gero fusilatu egin zutena. Saltsa haren erdian bi lagun horiekin topo, urriko iraultzaren egun berean. “Joño zer habil hemen?” galdetu zidaten” (169. or.)*

Hortaz, joan-etorriko kontakizuna da Hyde Park-eko hizlaria. 70. hamarkadan Londresen gaude, baina Frankismoaren azken urteak bizi dituen Euskal Herria ere aipagai da. Era berean Leoren ahotsean gerra zibilak eztanda egin aurretiko urteak, ihesaldia eta II. Mundu Gerrako garaia ere agertzen zaigu.

*“Behin, gerra zibiliaren garaian, nire jaioterriko komandantziara eraman ninduten galeketa latza egitera. Bertako burua Izkue komisario deitutako bat zen, hark agintzen zuen han (...)”(154.or)*

Leku-denbora eta ahots collage-a da Hyde Park-eko hizlaria.

*Alaitz Vives*

# HAUTS BIHURTU ZINETEN

IGERABIDE, Juan Kruz. Donostia. Alberdania 2005.

## Hauts bihurtzerainoko bidea

Joantxo, umetan, erori egin zen, eta min hartu. Hanka hautsi eta herren geratu. Orduantxe hasten da Juan Kruz Igerabideren eleberria, Hauts bihurtu zineten. Hor abiatzen du Joantxok berak bere bizitzari eta ingurukoei buruzko kontakizuna. Hankasartzez, kontraesanez eta azaltzen zail diren arrazoiez betetako bizitzak. Erabat artez ibiltzea, zuzentasunaren marjinetatik atera gabe, praktikan ezinezkoa dela erakusten duten herrenbideak.

Bere nerabegaroko eta gaztaroko urteak gogoratzen ditu Joantxok, frankismoaren bukarako urteetan eta trantsizioaren hastapenetan. Besteen bizitzen kuxkuxeatzaile, ereduak bilatzen ditu bere herriko biztanleen artean, egunerokoan ezagututako horien artean. Ez ditu heroi handiak aurkituko, ezta nahi ere.

*“Nahiago dut pertsona hurbilak mirestea, bizitzan gurutzatzen zaizkizun horiek, ezen miresmen horrek bidea osatzen laguntzen dit, bizitzaren estrata, merezi duen zerbaiten atzetik, uki dezakedan zerbaiten atzetik, eta ez amets lurruntsu baten atzetik. (...) Eguneroko pertsona arruntek ez dute garbi erakusten non dagoen ongia eta non gaizkia, baina gure irrika zintzoak laburbiltzen dituzte modu gizatiarrian, gizatiarregian”. (169. or.)*

Batez ere, pertsona bat miresten du Joantxok: Adela, maistra aurrerakoia. Emakume maitagarria da, gauza asko irakatsiko dizkiona, nahiz eta Adelaren jarrera batzuk Joantxorentzat ulertzen oso zailak izan. Politikaz, yogaz, pertsona izateaz... edozertaz, gehien Adelarekin ikasten du, eta hari kontsultatzen dizkio zalantzak.

Herriko asanbladetara agertzen den gizon batek, Idisko deitzen diotenak, antza yoga eginez ikasitako teknikak baliatuta egin zien aurre polizien jipoiei; halaxe entzun zion Joantxok neska bati. Adelari galdetzen dio yogaz, eta Adela erantzun:

*–“Hori ez da yoga, fakirismoa baizik. Eta horrekin ez dut esan nahi ez dudala miresten OICko lagunaren irmotasuna, baizik eta yogari buruzko ikuspegi hori zirkuko fakirismo hutsa dela, hori baino ez. Yo-*

*ga, batik bat, barruko filosofia da, bakoitzarena batez ere, nolabait esatearren, eta ez ahalmen fisiko bat. Dena dela, zirkua ere gizakiaren behar eta joera da, eta edozein egoeratan agertzen da; frontoiko batzar horiek badute zirkutik, eskolak ere badu zirkutik, eta elizak nahiz estatuak ere badute zirkutik; ikusiko duzu, bestalde, zer-nolako zirkua izango den erregimena erortzen denean, ez zaio-eta askorik falta; orduan jakingo duzu zer den politikaren zirkua, eta ikusiko dituzu, halaber, gaurko iraultzaile asko modako trajea jantzita, poltsikoari estuago helduz ideien esku-liburuari baino”. (66. or.)*

Mekaniko belarria du Joantxok, autoen motorei eta makinaren bihotzei ez ezik giza-sentimenduei ere antzemateko tresna fina. Zerbait gaizki dabilenean nonbait matxuraren bat egon daitেকেela igartzeko abildadea. Kontakizunaren garaian, politika giro nahasi eta eztabaidatsuan, ideologiek barik sentimenduek garrantzia handiagoa dutela ikasiko du Joantxok. Siglek baino gehiago baldintzatzen dutela asanbladan begirada nahi gabe zurearekin gurutzatu zituen haren begiek, esaterako. Herritarrek erabaki gogorak hartzen dituztela, eta ez beti, edo ia inoiz ez, aurreikusi zitekeen bidetik.

*“Zaila da giza jokabideak ulertzea. Ez dira zuzenean ideologia baten ondorio, ez eta jaso den heziketaren ondorio zuzen ere, nahiz eta bi osagai horiek eragin handia izan”.(179. or.)*

Joantxok hori guztia eta gehiago kontatu beharra sentitzen du, atzera begiratu eta ulertzen saiatu, nondik abiatu zen eta nora iritsi den, bai bera bai bere bizitzan eragina izan duten guztiak, pertsonak eta gertaerak.

*“Hau guztia idazten dut neure buruari zerbait argitu nahirik, neure denbora zerbait ulertu nahirik, ezen odolez eta suz egin ninduen denbora baten seme naiz, eta nolabaiteko azalpen bat aurkitu nahi diot honi guztioni, erre egiten bainau ez ulertzeak zer gertatu zen eta zer gertatzen ari den inguruan”. (182. or.)*



Kontakizuna osatzeko, memoria da protagonistaren dokumentazio gela eta tailerra, bizitzan atzerantz egiteko bidea, baina, sastrakaz betetako bide bat, erraz galtzeko eta gauza handirik aurkitu gabe itzultzeko modukoa.

*“...gutako bakoitzaren baitan, kimera-ingar amai-gabe bat dago, hots, oroimena, munstro beldurgarria; ez du lehen gertatutakoaren errainu argirik ematen, hauts bihurturiko apurrik ere ez du berpizten”.* (161. or.)

Memoria den armairu desordenatu horretan, kronologiarik ere ezin ezarri ziurtasun osoz. Nahiz eta, gehiegi ez ardura horrek, ez baita nobela historikoa egitea Joantxoren asmoa.

*“Hilabete batzuk aurrera egin, urte batzuk atzera... zer axola denbora zehatza, hau ez baita kronika historikoa, arimaren denborak beste data batzuk baititu, beste neurri batzuk, itsas uhinen antzekoak, baina haien tarte-desberdintasunik eta norabide beti-berdinik gabe”.* (177. or.)

Eta hor ibiltzen da memorian bila, urteen al-dapan gora eta behera. Abiadura handiegia hartuz gero, gelditu, eta atzera bueltatzen da ibilbidean despistatuta jaso gabe utzitako gauzen bila.

Denboran gehiegi aurreratu naiz, baina; atzerago miatzen jarraitu behar dut, ezinegonaren hautsak harrotzen, ezinegonak eramaten baikaitu, ezinegonak ekartzen, ezinegonak bihurtzen borrokalari, ezinegonak bakezale ere, ezinegonak nozitzaile, ezinegonak borrero. (101.or.)

Eta nola amaitzen den oroimenaren hautsak harrotuta osatutako kontakizuna? Bizitza guztiak amaitzen diren modu berean. Ez du ezer berezirik bukaerak, ibilitako bideek egiten dituztelako desberdin bizitzak, ez helmugek. Halaxe gogorarazten dio Joantxok irakurleari:

*“...Gizakioi amaiera interesatzen zaigu batez ere, egindako bideak zentzurik izan duen ala ez erabakitzeke, ahaleginak merezi izan duenentz jakiteko. Al-ta, benetan ote da garrantzitsu amaiera, jakin bada-kigularik amaiera orok, garaipen edo porrot, heriotza duela benetako helmuga, eta hantxe ezabatuko dela? Orduan, zer geratzen da arrakastatik, zer porrotetik? Iruditzen zait, bada, amaiera esaten diogun horrek ez ote duen hainbesteko garrantziarik, hots, ez ote den benetako amaiera, ezen amaiera bat eta bera dago guztiontzat: heriotza. Benetan garrantzitsua besterik da, orduan: egindako bidea, koskaz koska, harramazkaz harramazka, pintzel-arrasto bihurtzeraino”.* (217. or.)

Hauts bihurtu zineten ere, liburu guztiak bezala, lehenengo orria irekitzean hasi, eta azken orria ixtean bukatzen da. Kontakizunean irakurleak egindako bidaiak bihurtzen du desberdin eleberria, bakar eta berezi. Ez dagoelako Joantxok kontatuko duen istoriorik mundu osoko beste ezein eleberritan, hementxe baino ez.

*Ekaitz Goienetxea*

# BESTE DA MUNDUA


## mundu honetan errotutako liburua

IRIGOIEN, Juan Mari, Elkarlanean, 2008

*Bestea da mundua* eleberria hiru alez osatutako lanaren aurreneko liburukia da. Trilogia horren bidez, Joan Mari Irigoienek orbetarren sagaren ibilbide osoa plazaratu nahi du; narrazioaren hasiera XIX. mendearen bukaeran kokatuta dago. Izan ere, *Bestea da mundua* industrializazioaren hasieran Orbe familiak bizi izan zuenaz ari da; familiaren hastapenak kontatzen ditu; ondorengo liburukietan egurastuko diren zenbait istorioen aurrekariak jakinarazten dizkigu, beraz.

Joan Mari Irigoienek berak adierazi duenez, 400 orri baino gehiago dituen nobela honen bidez, ez du Guinness liburuan sartu nahi izan. Zera gertatu da soilik: buruak batzuetan “arnas luzeko gauzak” idaztea eskatzen diola, gauza guztiez hitz egiteko, gauaz eta egunaz, honetaz eta hartaz, gizarteaz eta norbanakoaz... Oraingo honetan, bizitzaz, heriotzaz, Jainkoaz, ateismoaz, sentimenduez eta pertsonak bizi gaituzten indar ezkutuez hitz egin nahi izan du, pertsonaien xehetasun psikologikoak azken muturreraino aztertuta. Horretarako, ikuspegi orojakilea erabili izan du, horrela, pertsonaia bakoitzaren informazio guztia jaso ahal izan du eta. Kontatu nahi zuen ideia lantzeko, Dostoievski hartu zuen bidelagun, zeren eta, Irigoienek esanetan, “gutxik ezagutzen baitituzte hark bezala arimak dituen ezkutalekuak”. Gizakiok jakin ustean egiten ditugun ekin-tzetan inkontzienteak duen lekua aztertzen saiatu da Irigoien, Dostoievskiren *Krimen eta zigorra* eleberria eredutzat hartuta.

Lehenengo liburu honek lau protagonista ditu: Regina eta Nazario senar-emaztegaiak eta Nazarioen bi anaia-arreba, Ernestina eta Beñardo. Nazario Orbe izaera gogorreko gizona da, eta ezerezetik abiatuta inperio ekonomiko handia eraikitzen du; Patricio Etxeberriarekin pareka liteke. Regina Aldasoro, ordea, erderaz ez jakite-tik Villalbako markesaren jauregiko konfiantzazko neskame izatera pasatzen da. Ernestina komentu bateko moja da, eta Beñardo bertsolari xelebrea. Eleberrian leku nabarmena hartuko du-te, halaber, Villalbako markesen alaba bikiek (Na-



talia eta Natividad). Sei pertsonaia horien inguruan bilbatzen dira liburuki honen hari nagusiak.

Kontakizuna Euskal Herriko industrializazioaren hastapenetan kokatuta egon arren, liburu honetan Joan Mari Irigoienek ez du kontu sozialik aipatzen, beste hauek baizik: Regina eta Nazarioen baitan hizkuntza eta kultura arloan gertatzen den haustura, mundu erdaldunak mundu euskaldunean sortzen duen liluramendua, mundu erdaldunean txertatu nahiak eragiten duen jauzia eta abar. Gogoetagai emankorrek, beraz, Irigoienek bere liburu honetan dakarzkigunak.

*Inaxio Lopez de Arana*



# ZER DA, BA, MAITASUNA?

MEABE, Miren Agur.

Elkarlanean, Donostia 2008.

Freskotasuna ekarri du Miren Agur Meabek liburu, poesia liburu, maitasun kronika, eguneroko, gutun nahi, bakarriketa-elkarrizketa... edo edozein modutan, zein jenerotan egokitu-ko nukeen edo nola definitu ez dakidan irakurketa oso atsegin honekin.

Gaia, maitasuna (beti gai berri) edo maitasuna bizi eta definitzeko intentzioa, hitzetatik harantzago, edozeinek egunerokoa, eguneroko gauzetan maitasuna biziarazteko ahalegina eta erraz eta goxo. Eta gaia (beti gai zahar) eramateko eran, gaurkotasuna, pertsonai, gertakari eta esateko moduetan. Gogoetarako gai eternoa. Sarri -sarri egiten digun galderan: zer da ba, maitasuna? Norberak erantzuteko aukera paregabea eskaintzen digu.

Etxekoa hizkuntza, behin irakurri eta ulertzekoa. Batek baino gehiagok, nerabe edo helduk, esan nahiko lituzkeen berbak paperean islatuta topatuko ditu, narrazio nahiz poemetan. Erritmoan oreka bat igartzen da, horretan laguntzen du narrazio testu guztiak, hala nola poemak luzera antzekoa izateak eta egitura berdintsua. Poesian irudien gardentasuna da nabarmena.

Esango nuke berritzailea dela Miren Agur estiloan eta liburua aurkezteko forman.

Alde batetik narrazioa eta poesia tartekatzearekin eta idatz molde ezberdinak bilduz, kontakizun bakar eta bildu bat eratu du, istorio bat jenero ezberdinez baliatuz. Atalka-atalka beti aurrena datorren narrazio testuak bideratzen du eta errazten poemaren irakurketa. Gainera, alfabetoaren segidak irakurlea irakurketa-rako espazio eta denbora jakin baten aurrean jartzen du.



Beste alde batetik, liburua irakurtzeko proposatzen duen jolasa ere berritzailea da. Nondik hasi, atzekoz aurrera, aurretik atzera, erabaki beharra dago eta bi aldeetatik irakurri beharra ezinbestean, edo tartekatuta edo batera antzean, baina beti bi aldeetatik.

Ondo etorria, berriz ere, poesia, samurtasuna eta maitasuna letra formetara.

Nire iloba Garikoitz, hamabost urtekoari oparitu diot ale bat eta nik neuk, berriz irakurrikodut atsegin handiz etxerako ekarri dudana.

*Karmele Igartua Bengoa*

# UNED-Bergara

UNED

BERGARA



GRADUAK  
Lizentziaturak  
Diplomaturak  
Injinerutzak  
Doktoretza ikastaroak

Graduondokoak  
Aratu gabeko ikastaroak  
Hizkuntzak  
Berezko ikastaroak

IKASLE BERRIENTZAT AURREINSKRIPZIO EPEA: **ekainaren 16tik aurrera**  
MATRIKULA EPEA: **irailaren 15etik urriaren 31ra bitartean**

UNED

BERGARA

#### Informazioa:

UNED. Martin Agirre Pl., 4.  
20570 Bergara  
Tel. 943 76 90 33  
info@bergara.uned.es  
www.uned.es/ca-bergara

# www.idazten.com

Zenbat bisitari azken urtean? -Milioitik gora seguru...

Eta etengabeko osatze prozesuan:

Idazle berriak, idazle-gaiak, idazlan argitaratu gabeak, sortze lan originalak, irudiak, ilunabar literarioak, monografi-koak, estekak, literaturarako sarbidea...

Hamaika baliabide bisitariarentzat eta hamaika aukera Idazle Eskolako ikasle eta ikasle ohi ororentzat.

## Azken berrikuntzak:

- **Foroan eta agendan norberaren klabeaz eragin ahal izatea.**  
Ikasle guztiak barne helbide elektronikoko bat dute eta hori erabiltzen da gure hartu emanetarako. Klabe horiek erabilita web orriko foroan eta agendan eragin dezake ikasleak, albisteak sartu, sariketen berri eman edo irakurketen inguruko iritziak emateko esate batera.
- **Lanak liburu eran irakurtzeko teknika berria.**  
Orain arte lan motzak ziren nagusi. Ikasleak luzeak sartzen ari diren neurrian, irakurtzeko erraztasunak bilatzen ari gara.  
Gaur egun liburu erara antolatutako idatziak (gure aldizkariak, saiakera lanak, eleberriak) liburu eran irakur daitezke [www.idazten.com](http://www.idazten.com) web gunean.
- **Bideoak eta entzuketak.**  
Hainbat testu, irratian grabatutakoak adibidez, edo ilunabar literarioetan grabatutakoak, entzun eta ikusi ere egin daitezke, alor horietako ikurretan klikatuz gero.

## AGERKARIETAN GU

MUGALARI, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ, NABARRA, BETERRIKO LIBURUA, MAIATZ, HATSAREN POESIA...

Azken urteotan, IDAZLE ESKOLAKO ikasleek, GARAKO MUGALARIN argitaratzen dute narrazio testuak, hamabostero, txandaka. Plaza horrek idazlea irakurlearengana iristea ahalbideratzen duen heinean ikaslea idazle erreal bilakatzen da. Kristina Fernandezek sortutako irudiek laguntzen dituzte argitalpenak.

Ugariak izan dira, gainera *Administrazioa euskaraz*, *Nabarra* edo *Beterriko liburua* euren testuak argitaratu dituzten ikasleak. Baita *Maiatz* eta *Hatsaren poesia* liburua argitaratutako gure poemak ere.

## MINTEGIAK

Ikasturtean zehar hiru mintegi izan ditugu bizi-bizirik:

**1-IDAZLEAK IRAKURLE** mintegia: hilean behin burutu da, larunbategian, UNEDen 11:30etatik 13:30etara. Mintegi honetan Mariasun Landa, Gerardo Elortza Yon Etxaideren inguruan, Joxe Mari Iturralde, Juan Kruz Igerabide, Jokin Muñoz, Juan Mari Irigoien eta Laura Mintegik hartu dute parte eta bildu dituen gaia "Bakean edo gerlan: historia narrazioetan" izan da. Idazle bakoitzak, bere liburu bat ardatz hartuta, gai orokorra hartu eta eleberriak egin dituen ibilbideak azaldu ditu, bakoitzak bere estiloan. Idazle Eskolako ikasleak, txandaka, idazleen eta landutako liburuaren aurkezpena eta iruzkina egiteaz arduratu dira. Saio bakoitzean hogeitabost bat entzulek hartu dute parte, galdera eta iradokizun interesgarriak eginez.

**2-IRAKURKETA TALDEA** mintegia: Idazleak Irakurle mintegia egokitzen zen larunbat guztietan, ikasle ohi talde bat bildu da 9:00etatik 11:00ak arteko ordutegian eta mintegiko partaideen sortze lanak izan dituzte mintzagai. Mintegi honetan, beste batzuen artean, hiru helburu bete dira: batzuk besteen lanak irakurtzea, besteen lanei iradokizunak egiten ikastea eta ikasle ohiek elkarrekiko harremana mantentzea. Zortzi lagun sortze lanak aztertu dira.

**3-IDAZTEN ERAKUTSI** mintegia: hamabostean behin eta ordu eta erdiz, Idazle Eskolako ikasle ohi talde bat, bederatzi lagunez osatua, UNEDen bildu da, mintegiaren izenburuak dioen gaia landu aldera. Taldearen gidaria Tere Irastortza izan da eta mintegiaren helburu nagusia, Idazle Eskolako gradu-ondokoa egindako ikasleek idazten erakusteko gaitasuna jorratzea izan da. Mintegian zortzi saioko modulu bat programatu da eta materiala sortu da; ikasle talde batekin praktikan jarriko den materiala, hain zuzen ere.

## ILUNABAR LITERARIOAK

ARETXABALETA, BEASAIN, ATAUN, ELGOIBAR eta GERNIKA izan ditugu irailetik hona gure sortze-lanak irakurtzeko plaza. San Juan aldera, berriz, ZUMARRAGAN bilduko gara ikasturte honetako zikloa itxi aldera. Sei bilgune biribilgunea ixten, mairu-baratzeen antzera, horiek ere, euskarak eta literaturak erakarrita.

**Aretxabaletak** irailean entzun zituen gure ahotsak. *Hitzak orbainetan* poesia liburua ardatz, lagun asko bildu zen Arkupe kultur gunean. Poesia emanaldia izan zen ordukoa eta poesiarekin batera dantza.

Gero **Beasain** azaroan. Han *Izendaezinaz* egin genuen gogoeta, beldurraz edo amodioaz, heriotzaz eta gure izateaz.

Abenduak **Ataunera** eraman gintuen eta liburu azokaren inguruan, idazleak eta liburuak izan ziren hizpide gure testuetan.

Martxoan **Elgoibarren** elkarrekin hizketan... izan ere elkarrizketak antzestu genituen eta gero olerkiak.

Apirilaren 26an **Gernikarantz** abiatu ginen, azokara ez aurten-goan, gaztetxera ilunabarrean baizik; bonbardaketak eta zeruak, sirena hotsak eta minak eta itxaropenak esan genituen denon artean munduarentzat.

Laster Zumarraga, aldizkari hau, *Luma Berrien Eleak* aurkezteko aitzakian.

Literaturak eta lagunarteak topa koaderno eta basoerdietan!

(Ilunabar gehienak ikusgai eta entzungai daude [www.idazten.com](http://www.idazten.com) eko irudi, entzuketa edo bideo ataletan)



## NABARMENTZEKOAK

- Aurreko ikasturteko bekaren irabazleak: **ALAITZ VIVES** poesia, **GORKA AZKARATE** dibulgazioan, **ITZIAR GOMEZ** eta **JON ORZAIZ** narrazioan. Lan sarituak [www.idazten.com](http://www.idazten.com) gure web gunean irakur daitezke.
- **INAXIO LOPEZ DE ARANAK**, Idazle Eskolako 1. mailako ikasleak, Zumaiako **Julene Azpeitia XXI. ipuin lehiaketa irabazi du Labanak airean** lanarekin.
- **LEIRE ZUBELDIK** *Atxulondoko azken olagizona* ipuina argitaratu du.

## BEKA

Idazle Eskolako lan luze eta sakonak bultzatze bidean, urtero beka antolatzen da. Edozein gai eta edozein genero aukera daiteke, literaturazkoa edo administrazio-dibulgaziozkoa. Hiru sari eman ohi dira eta ez beti generoka banatuak; aurkeztutako lanen izaerak baldintzatzen du irizpidea. Leire Zubeldiak irabazi du aurtengo saria *Bizirauten* lanarekin.



**Eneko Aranburu Barreneitea**

Idaztea, bizibeharren listan sailkatzen da, behin nazkatuta inoiz ez gehiago idaztea erabakitzen duzunean eta hilabete bat beranduago erabakitakoari muzin eginez, inpentsan idazten jartzen zarenean. Zuzenbide ikasketa egin eta idatzi. Abokatu bezela jardun eta idatzi. Musikaz gozatu eta idatzi. Irakurri eta idatzi. Potrotaraino denataz eta idatzi...



**Amaia Artolazabal Amilleta**

Zumarragan jaioa 1981ean. Ikastolen Elkartearen, ikas-materialgintzan diardut lanean. Azken bi urteetan Idazle Eskolako ikaslea izan naiz.



**Iban Balerdi Aranburu**

Goierrin jaio eta bertan bizi naiz 1976tik. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua. Gaur egun, hala ere, euskara klaseak ematen ditut. Ikasten eta hazten jarraitzeko beste pausu bat izan da Idazle Eskolara joatearena.



**Doltza Barandiaran Munduate**

1982an, Munduko futbol txapelketa Espainian jokatzen urtean zapaldu nuen lurra. Hortik, agian, kirolarekiko zaletasuna, nire pasioa da saskibaloia, txirrindularitza, pilota, futbola... ez naiz berehalakoan aspertzzen. Bat-batean esaten ausartzen ez naizena botatzen dut paperean. Udazken koloretan mendira paseatzera joatea atsegin dut, lagunekin egon, parrandak egin eta musikaz gozatzearekin batera.



**Axun Gereka Zelaia**

Axun Gereka Zelaia naiz, Oñatin jaioa, euskalgintza esparruan orotarako ibilia, eta orain zure bidaide.



**Ekaitz Goienetxea Cereceda**

(Miarritze, 1982). Ez daukat telebistarik etxean, ez naiz sekula Madrilen izan eta ez dakit... gauza asko. Eta zer.



**Itziar Gomez Sarasola**

1964ko azaroaren 30an ikusi nuen argia. Gurasoen eta sei neba arreben artean, gure etxea beti izan da biziak betea. Nire etorraren iturria. Bikoizketan hasi nintzen oso gaztetan. Bikoizketarako gidoi egokipenak burutzen ere jardun nuen. Hitza nola egokitu aktorearen ahoan. Aktore zuzendari lanetan ibilia naiz, *Goenkale* telesailan dela *Balbemendin* dela. Gaur egun gidoigintzan ari naiz.



**Jone Gorostazu Etxebeste**

Berastegin jaio nintzen 1984ko abuztuaren 27an, eta bertan bizi naiz. Orain AEKn ari naiz lanean, euskaldun berriak sortu nahian. Historia ikasi nuen Gasteizen, baina nahiago ditut istorioak historia baino eta denbora librean idaztea gustatzen zait.



**Karmele Igartua Bengoa**

Idazle Eskolako Ikasle ohia. Aldapa goratan nekez, aldapa beheatan aiseago, bideetan aurrera, soseguz.



**Izen Yoseba**

(Sodupe, Bizkaia, 1977). Idazle eta itzultzailea, batez ere narratiba eta poesia lantzen du. 22 urterekin Vienara (Austria) joan zen eta zazpi urtez aritu zen bertako zenbait unibertsitateetan Informatika irakasle. Egun, Zarautzen bizi da eta Deustuko Unibertsitatean (Donostian) egiten du lan.



**Aitziber Lekuona Ilundain**

Arrantzale herri bateko baserri batean jaio nintzen. Beste hainbat gauzen artean iragana dut ofizio eta afizio. Idazleetatik ikastea izan da otu zaidan abenturatariko bat.



**Inaxio Lopez de Arana Arrieta**

Lanbidez itzultzailea da, eta zaletasunez literatur sormena lantzen du.



**Ainara Maia Urroz**

Euskal filologian lizentziaduna naiz, baina bokazioz idazlea... beti ari naiz idazten! Ene sentimenduak posesiaren bidez adieraztea gustuko dut, kantu leun baten gisa. Arrosa baten arantzak ziztatuz gero, barruraino sartzen zait eta nolabait ere kanporatu behar dut... edozein hizkuntzatan, baina batez ere euskaraz... idazle izan nahi dut, baina poeta naiz!



**Igone Meaza Uriagereka**

Gernikan jaio nintzen 1977. urtean. Euskal Filologia ikasi nuen eta egun irakas-kuntzan eta hiztegi gintzan dihardut.



**Juan Miguel Munarriz Eraso**

1948. urtean, ekainaren 19an, Elizondon jaio nintzen. Geminis izan eta izen bikoitza jarri zidaten! Juan eta Miguel,... Eta harrez

gero bi pertsonai horien borroken erdian beti ibili behar! Gauzak horrela, inor ez litzateke harritu behar nire bigarren bizitza egiten ari naizela entzutean.



**Maku Dominguez Noriega**

1968ko maiatzean jaio nintzen, ez Parisen, Gasteizen baizik, negar batean eta goizeko 6:00etan; agian horregatik beti gustatu izan zait goiz altxatzea eta gorrotatu izan dut gauz ibiltzea. Maku deitzen zidaten txikitan eta gustuko dut izen hori, maitasun handiz jarritako izena baitzen.

Lanbidez, irakaslea, itzultzailea, zuzentzailea, trebatzaile linguistikoa eta, bolada batzuetan, aztertzailea. Beti euskararen inguruan eta euskarak "beste euskalki bat" duen eta euskaraz hitz egitea "militantzia" egitea den hiri horretan. Egun, Idazle Eskolak proposatutako abentura honetan murgilduta nago ea idazteko zaletasun basati hau nolabait "domestikatzeko" dudan.



**Iñaki Odriozola Susaeta**

1961ean jaioa, Elgoibartarra. Magisteritza egin nuen lehenik, eta gero Filosofia. Filosofia irakaslea naiz azken 19 urteetan. Azken urteetan, Elgoibarko Institutuan Ekekei antzestaldeko partaidea naiz. Eta antzerkilari amateurra naizen bezala, idazle amateurra izatea ere gustatzen zait.



**Carmen Valois Nuñez**

Jakin-mina izan da nire bizitzaren ardatza eta iparorratza. Bilaketa horretan, Idazle Eskolara hurbildu nintzen zerbait berria ikasteko asmoz eta, hor sartzearekin batera, unibertso berria zabaldu zen nire aurrean, ikasteaz haratago, bizitzearekin ezinbesteko lotura estua zuena. Era berean, irakurle amorratua naizen aldetik, literatura beste ikuspegi batek ezagutzeko aukera paregabea eman dit edo, hobeto esanda, eguneroko bizimodu arrunta beste modu batez irudikatzeke aitzakia.



**Alaitz Vives Urbieta**

Txikitan sukaldeko leihotik ikusten nuen mendiaren ostean zer zegoen galdetu nion amari "-ze egongo da ba? Beste mendi bat". Hura horrela ote zen nire begiez ikusi behar nuela okurritu zitzaidan. Nire oinen pausopean mendi batek bestea nola dakarren ikustea, mendiak aran berria, aranak erreka, errekek ibaia, eta ibaiko ura bezala, oinez ala bizikletaz ni hara.



**Leire Zubeldia De Esteban**

1984an jaio zen Zizurkilen. Kazetaritzan lizentziatua da, eta egun, aldizkari batean egiten du lan.



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Мне ли — я влюблен, боюсь  
Обаять, привнужу любовь,  
Дабы в душе твоей, как в море,  
Жизнью приливом брызнула,  
Из нежных звезд моих, Далеко,  
Поспеть совсем — звезда.

#### К. ВАЛЬМОНТУ

Не все назвала я, но одно признаюсь,  
Как умоляю Тебе мой вздох, Глаголю,  
Мне непонятен тот бардак, что Глаголю,  
Перебивал: он ведал безулыбку,  
Ему презрительно было самовластье,  
Как Антигона был презрен Крестом,  
Страна чужой пошлой гордыни,  
Его томил... Изгнанника алчность,  
Твой рок!.. И твой — плываю отважно,  
О, кто из нас в лирические бури  
Бросался, шаг, как нежный Дионис,  
Любовника луны, дитя лазури,  
Тебя любовь свела в крошечный ад,  
А ты нам пел «Зеленый вертоград».

1909

222

#### СЕРДЦЕ ДИОНИСА

Сердце алмазной слезы,  
Снеговарий, дымчатый,  
Серебряный — ассирийский,  
Ужаснейшей Амфитры,  
Ужаснейшей хариты,  
Как «ураганство» комитат  
Резв прорисован тишиной,  
И свистит пощипывая,  
И день избранный, предо мною  
Ты прелесть-га, Парнас под своим святым курганом,  
Сердце Дниоса, обреченного Титанам,  
Сердце отрока Загрея, престало в их лезвиях,  
Сердце исторнутого рдеи, прелесть ты в солнечной гробнице,  
Сердце жертвенное дед, сиря ты в солнечной гробнице,  
Сердце Древнего Загрея, о таинственный Парнас,  
И до дна, в который Гея — мать-Земля сарказм,  
Как божественная Ниса, просветится, адепт,  
Сердце Солнца-Диониса утало от буйных нас.

(1910)

223

“Alferrikakoa da esertzea idazteko oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko.”

Henry David Thoreau



# Donostia Hiriko Kutxa Literatur Sariak 2010

## Euskarazko ipuina

Saria: Garaikurra eta 10.000 euro\*

## Gaztelaniazko ipuina

Saria: Garaikurra eta 10.000 euro\*

## Euskarazko antzerkia

Saria: Garaikurra eta 20.000 euro\*

## Gaztelaniazko antzerkia

Saria: Garaikurra eta 20.000 euro\*

## Donostia Hiriko Kutxa Literatur Sariak 2010

Idazlanak onartzeko epea 2009ko urriaren leian amaituko da.

Lanak aurkezteko:

GUDAT, Gurutzegi bidea, 14-18

Pol. Ind. Belartza, 9.pabiloi.

20018 Donostia-San Sebastián, edo telefono honetara deituz: **943 000 850**

e-mail: [certamenes@begira.com](mailto:certamenes@begira.com)

Argibide gehiagotarako eta oinarriak eskatzeko: [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net)

\* PFEZ-ari salbuetsitako Sariak.



zer nahi duzu bihar?